

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Eserlekua lortu edo ez

IÑAKI ALTUNA > 11

## TXUTXI ARIZNABARRETA:

«Asko daukagu ikasteko Eskoziako prozesutik» > 22

# GAUR8

2014ko maiatzaren 24a | VIII. urtea • 366. zbk.  
0,50 euro

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



# ESKUBIDEAK HARI, JENDARTE EREDU BERRIA JOSIZ

AUZOLANEAN ERAIKI DA EUSKAL  
HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN  
GUTUNA. INORENA, ETA, ALDI  
BEREAN, HERRITAR ORORENA IZAN  
NAHI DUEN KARTA. > 12 GAUR8

**Multinazionalei garesti ateratzen zaie herriak haserretzea** 04

**Israelek kartzelan sartzen ditu Sudandik ihes egindakoak** 07

**Europar Batasunak Euskal Herrian duen eragina aztergai** 08

**Eskubide Sozialen Gutuna, eredu berrirako bidean mugarri** 12

**Bestelako aisialdi ereduaren alde egiten dute Herri Olinpiadek** 17

**e.lkarrizketa: Txutxi Ariznabarreta, Independentistak sareko kidea** 22

**Elikagai ekologikoen eskaintza zabala** 27

**Infraganti: Ainhoa Galdeano, patinatzailea** 28



## SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Diplomazia ereduak  
 06 **Unai Belaustegi:** Anisakisa  
 10 **Oier Gorosabel:** Eskuak txindurrituta  
 11 **Iñaki Altuna:** Eserlekua lortu edo ez  
 20 **Nagore Amondarain:** Riverside  
 21 **Mikel Soto:** Hegemonia  
 25 **Xabier Mikel Errekondo:** Emakumezkoen eskubaloia, hobe  
 29 **Joseba Otondo:** Gure esku zer?  
 31 **Ander Izagirre:** Ez da isilik egoteko garaia



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

# Diplomazia ereduak

**B**ritainia Handiari egozten zaio diplomazian aro berri bat ireki izana: “kanoiontzia diplomazia”. Oso eredu simplea da. Funtsean, Britainia Handiko XIX. mendeko Inperioak mezulari bat bidaltzen zuen inguru jakin bateko biztanleei bere eskaerak helarazteko. Momentu berean borrokarako prest zegoen kanoiontzia zeruertzean agertzen zen. Mehatxu horren pean bertako bizilagunek amore ematen zuten eta berehala Inperioaren eskaerak onartzen zituzten. Horrela diplomazia mehatxuen joko hutsa bilakatu zen.

Lehenago, mendeetan zehar diplomazia trebetasun burutsua izan zen. Xedea berdina izanik, helburu jakin batzuk erdieste, bitartekoak arras ezberdinak ziren: besterri tratua ona zela sinestaraztea norberaren helburuak lortzea bezain garrantzitsua zen. Diplomazialariek planteatzen zituzten tratuak, bi aldeentzako positiboak izateko asmoz; hau da, irabazle-irabazle eskema erabiltzen zuten. Kanoiontzia diplomaziak, aldiz, irabazle-galtzaile eskema zuen gidari. Azken diplomazia mota horrek epe motzeko emaitzak ematen dituen arren, epe erdira gatazkak besterik ez ditu ekartzen.

Irabazle-galtzaile eskema hori oso erraz lotzen da beste dikotomia batzuekin: onak eta txarrak, gutarrak eta besteak, eta abar. Horrela jendeak alderdi baten edo bestearen alde posizionatzea

bilatzen da. Hortik aurrera jarrera kritikoa desagertzen da eta aukeratutako aldeak egin edo esan duena ontzat ematen da, besterik gabe. Horrela, praktikan, nazioarteko harremanetan diplomazia desagertzen ari da eta bere lekua indarrak hartu du, mehatxuen kudeaketara murriztu baita bere zeregin nagusia.

Mehatxuak mota askotakoak izaten dira. Estatu boteretsuei asko gustatzen zaie duten indar militarren erakustaldiak egitea. Edozein krisiren bueltan soldaduak mugitzen dituzte, maniobrak egiten dituzte, arma berriak frogatzen dituzte, eta abar. Indar erakustaldi horien azpian, estatuen zaletasunen balizko zerrenda batean, mehatxu ekonomikoak edukiko genituzke: santzioak, esportazioen eta inportazioen mugapenak, eta abar. Bitarteko politikoei, aldeko adierazpenak lortzea adibidez, indar gutxi eskaintzen zaie.

Ukrainako krisia indarrean oinarritutako diplomazia horren inguruko adibide asko eskaintzen ari da. Europar Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek Errusiako zenbait enpresa eta herritarren aurkako santzioak onartu dituzte. Errusiar Federazioak, aldiz, gas horniketa moztearekin mehatxatu du Ukrainako Gobernua. Ika-mika horretan gaur egungo diplomaziaren funtsezko ezaugarria agerian geratzen da: nazioarteko harremanetan elkarren arteko mehatxuen kudeaketa da nagusi. Harrigarria egiten zait, halere, AEBetan eta Europar Batasunean egiten den balorazioa Errusiak emandako urratsen inguruan: baliabide ekonomikoaren erabilera politikoa egitea onartezina dela diote. Eta zer dira, ba, beraiek herritarren eta enpresen aurka jarritako santzioak? Besteen akatsak ikusteko antiojo beharrik ez!

Behin bide hori hartuta, zurikeria berehala agertzen da. Kanadak, adibidez, hasiera-hasieratik egin zuen bat AEBek eta EBk erabakitako santzioekin. Santzioak gogortzeko bide

Gaur egungo diplomaziaren funtsezko ezaugarria agerian geratu da Ukrainako krisian: nazioarteko harremanetan elkarren arteko mehatxuen kudeaketa da nagusi

horretan, baina, iritsi da momentu bat non Kanadako interesak kaltetuta suertatu diren. Kanadak, ondorioz, santzio batzuk ez onartzea erabaki du. Hala, Rostech eta Rosneft konpainietako zuzendarien aurka neurriak ez du hartu. Interes joko horretan bestelako balioak eta helburuak aipatzea, esate baterako askatasuna, lotsagarria iruditzen zait.

Indarraren diplomazia boteretsuen jokoak da. Estatu txikiak eta herri zapalduak ez dute liga horretan jokatzetik; akaso, batzuek jokatzeko nahiko lukete, baina ez dute horretarako baliabide nahikorik. Halere, estatu txiki gehienek diplomazia erabiliz denek irabazten dutela pentsatzen dute. Horregatik, estatu asko letra larriekin idatzitako diplomazia horretan aritzen dira munduan zehar. Euskal Herriak ere esparru horretan jokatu beharko du. Horretarako oso garrantzitsua da nazioarteko eremu guztietan ordezkariak izatea, irabazle-irabazle eskema horiek taxutuz betiere. •



# LATINOAMERIKA

## Ustiapen gatazkatsuak garesti ateratzen zaizkie meatzaritza eta petrolio konpainiei

 **GIZARTEA** / Stephen Leahy - Tierramerica

Meatzaritza, petrolio eta gas konpainiei garesti ateratzen zaizkie beren jarduerak eragindako gatazka sozialak: milaka milioi dolar urtero. «Proceedings» aldizkariak argitaratu berri du gaiari buruzko ikerketa bat: lanak ondorioztatzen du merkeago ateratzen zaiela konpainia horiei herriekin ondo konpontzea borrokan ibiltzea baino.

**K**onpainia bakar batek jakinarazi zuen bi urtetan 6.000 milioi dolar gastatu zituela, lurrazpiko baliabide naturalak ustiatzen dituen industriari gatazka sozialak eragindako pisu ekonomikari buruz egindako lehen ikerketak azaleratu duenez.


Txile eta Argentinaren arteko eremu batean, bestalde, urrea ateratzeko Pascua Lama izeneko proiektua jarri zuten abian. Herriarren protestaldiak eta irregularitasunak tarteko, 5.400 milioi dolarreko gastua izan zuen Barrick Gold Kanadako konpainiak hamar urteko epean; aldiz, ez zuen urre kilo bat bera ere ateratzerik izan. Azkenean,

**Rosa Tanguila** ekintzaile kitxua, Texaco petrolio konpainiak Rumipamba Amazoniako komunitatean eragindako kutsadura garbitzen.  
Gonzalo ORTIZ | IPS

orain urtebete, Txileko Justizia Administrazioak proiektua bertan behera uzteko agindu zuen.

Tankerako zerbait gertatu zen Conga meatzaritza proiektuaren inguruan, Perun. 2.000 milioi dolarreko aurrekontua zuen arren, herritarren mobilizazioek eragin zuten 2011n lanak bertan behera uztea. Bertakoek salatu zuten jarduerak ur gezako lau urmael suntsituko zituela. Azkenean, Yanacocha enpresak lau ur gordailu eraikitzeako konpromisoa hartu zuen, suntsitutako urmaelak ordezkatzeko.

«Herriak ez daude indargabe, ahalmenik gabe. Gure ikerketak erakusten du komunitateek antolatzea eta mobilizatzea lortzen dutela, eta horren eraginez konpainiek ikaragarriko gastuak izaten dituztela», adierazi du Daniel Franks Australiako Queensland Unibertsitateko ikerlari eta CSRM Meatzegintzan Gizarte Ardurak Bultzatzeko Zentroko zuzendariordeak. «Ta-



malez, gatazka horiek odol isurketak eta heriotzak ere eragiten dituzte», esan dio Franksek Tierramericari.

AEBetako Zientzia Akademia Nazionaleko "Proceedings" aldizkariak argitaratu zuen ikerketa maiatzaren 12an. Mundu osoan lanean aritutako erauzketan industriako energia eta meatzaritza konpainietako 45 goi kargu elkarrizketatu dituzte, era sakonean eta sekretupean, ikerketa egin ahal izateko.

#### BIKAINASUN ESTANDARRAK

Gainera, ikerketa berean oinarritutako txosten berezi bat ere egin zuten, herrien eta erauzketan konpainien arteko gatazkek eragindako kostuen inguruan. «Herriekin harreman txarrak izateak eragiten dituen kostuak dokumentatu nahi genituen. Enpresa asko ez dira horretaz jabetzen, bakar batzuk baino ez baitira konturatzen arazoak dituen arriskuez», esan du Franksek. «Konpainiek beren irabaziak bermatu nahi badituzte, herriekin elkarlanean hasi behar dute eta ingurumen eta gizarte bikaintasun estandarrak hartu». «Merkeago ateratzen zaie konpainiei herriekin ondo konpontzea borrokan ibiltzea baino. Herritarrak normalean ez daude garapenaren aurka. Baina ez dute onartzen garapen horrek izango duen era erabakitze-ko garaian esku hartu eta kontrol neurriak ezartzeko inolako aukerarik ez izatea», erantsi du ikerlariak.

«Jatorrizko herriei onura ekarriko dien garapen eredu nahi dugu, ez bakarrik norbaiten koinatuari onura ekarriko diona», adierazi du Alberto Pizango Aidesep Peruko Oihanaren Garapenerako Etnien Arteko Elkarte-ko presidentea. Elkartean Peruko Amazoniako 1.350 jatorrizko herriek esku hartzen dute.

«Naturarekin harmoniatsua izango den garapenaren inguruan jatorrizko herriek badugu zer esanik. Gure Amazonia maittea suntsituko duen garapenik ez dugu nahi», esan dio Pizangok Tierramericari Limatik.

Bere garaian Peruko Gobernuak atzerriko konpainiei eman



Alberto Pizango, Aidesep elkarteko presidentea. Coimbra SIRICA | BURNES GLOBAL

zian jatorrizko herrien betiko lurren gaineko kontzesioa eta Pizangok lan asko egin du erabaki horren aurkako erresistentzian. Borroka hori tragedia bihurtu zen 2009ko ekainaren 5ean, manifestariak itxitako errepide bat irekitzeko asmoarekin Polizia bertaratu zenean: 24 polizia eta 10 zibil hil ziren Bagua izeneko iparraldeko oihane-ko herrian.

Indigenek bazuten mobilizatzeko arrazoirik. Jatorrizko herrietan inbertsio pribatuak suspertzeko asmoarekin hamar dekretu onartu zituen Gobernuak. Konstituzioaren aurkakoak ziren, dekretuen aurkako iritziz. Agintariak beren asmoei eutsi zieten eta indigenek protesta egitea erabaki zuten.

Hilaren 14an hasi zen Baguan bertan Pizango eta beste 53 pertsonen aurkako epaiketa. Bortizkeria bultzatu izana eta 2009ko sarraskiarekin lotutako beste 18 delitu leporatu dizkiete. «Ez genuen beste aukerarik. Gure protestaldia erabat zuzena zela pentsatu genuen. Baina ordaindu beharreko faktura garestiegia izan zen. Ez dugu tankerako zerbitu errepikatzerik nahi. Protesta erraldoitik proposamen erraldoira pasa nahi dugu», adierazi du Pizangok. Biziarteko kartzela zigorra ezarri diezaioke, epaileek zigorra merezi duela erabakiz gero.

#### SAIHESTEKO MODUKO SARRASKIA

"Proceedings" aldizkariak argitaratu emandako ikerketak ondorioztatzen du Baguako sarraskia saihesteko modukoa zela. Horretarako, agintariak zein konpainiak jatorrizko herrien esku-bideak onartu eta beraiekin lan egin behar zuten. «Pena handiz esan behar dut Perun oraindik ere ez dela hori gertatzen», erantsi du Pizangok. Bera ez zegoen Baguan protestaldia tragedia bihurtu zen egunean.

Aldi berean, paradoxikoa bada ere, Ingurumen Ministerioak Pizangori berari eta berak zuzentzen duen Aidesep elkarteari eskatu die NBE Nazio Batuen Erakundeak klima aldaketaren inguruan antolatutako behar duen gailurra prestatzen laguntzeko.



Aipatu bilera Liman egingo da, aurtan bertan. Pizangok uste du gailurra aukera ezin hobea izango dela jatorrizko herriak basoak eta klima babesteko gai direla munduari erakusteko.

Konpainiek eta gobernuek herriekin dituzten harremanak bere onera ekartzea zaila izaten dela uste du Rachel Davis AEBetako Harvard Unibertsitateko Gizarteko Ardura Korporatiborako Ekimeneko kideak. «Askoz ere zailagoa da herri batekin harremanak berriz eraikitzea, lehen suntsitu egin badira. Harremanetan ezin da besterik gabe atzera egin», adierazi du Davis ikerketaren egileetako batek. Franksek dibortzioarekin alde-ratzen ditu konpainien eta herrien arteko harremanak: ia inoiz ez da gertatzen dibortziatutakoak berriz ezkontzea.

Meatzaritzako korporazio handienak gaia ulertzen hasiak direla dirudi. Davisek jakinarazi duenez, korporazio horietako batzuk NBEren Giza Eskubideen eta Enpresen Printzipio Gidariak aplikatzen hasiak dira. Metal eta Meatzaritzako Nazioarteko Kontseiluko Garapen Jasangarrirako Markoa ere bere egin dute. Ez da gauza bera gertatzen hidrokarburoen alorrean. «Horiek oso kultura desberdina dute. Ez dauke herriekin harremanak edukitzeraz ohituta», esan du Franksek.

Ikerketak agerian uzten du in-gurumena eta ura izaten direla

Peruko Gobernuak atzerriko konpainiei eman zien jatorrizko herrien betiko lurren gaineko kontzesioa. Erabakiaren aurkako erresistentzia tragedia bihurtu zen 2009ko ekainaren 5ean, manifestariak itxitako errepede bat irekitzeko asmoarekin Polizia bertaratu zenean: 24 polizia eta 10 zibil hil ziren Bagua izeneko iparraldeko oihaneko herrian. Irudiko txartelak sarraski hura gogorarazten du. GAURB

tentsioa eta borrokak eragiten dituzten faktore nagusiak. *Fracking* edo haustura hidraulikoa erabiliz gasa eta petrolioia erauzteko jarduerak ugaldtu egin direnez, eta horiek ura kutsatu egiten dutela kontuan hartuta, Daniel Franksek uste du gatazka handiak izango direla hemendik aurrera.

#### PRESIO EKONOMIKOA

«Txosten ona da, baina ez du aipatzen kontu garrantzitsu bat: proiektuak lehenbailehen aurrera ateratzeko izaten diren presio ekonomiko zein politikoa», dio Jamie Kneen Mining-Watch Canada gobernuz kanpoko erakundeko ekintzaileak.

Akziodunek beren inbertsioek irabazi handiak ematea nahi dute, eta, gobernuek, zergak eta abantailak lehenbailehen iristea. Horren eraginez, konpainiek amore emateko interes gutxiago izaten dute, edo herritarrek onartzeko moduko alternatibak aurkitzeko ez dute nahikoa denbora hartzen, Kneenek Tierramericiari esplikatu dionez. «Enpresek badakite arazoak izango direla. Normalean, gatazka ez dela handiegia izango egiten dute apustu, eta inbertsioa egin dute-nei arrisku hori ezkututzen saiatzen dira», erantsi du.

Gainera, gatazka guztiak ez dira saihesteko modukoak. «Komunitate batzuek ez dute inoiz onartuko beren ura kutsa dezakeen inolako arriskurik».

## Anisakisa

### Unai Belaustegi


Egunotan anisakisa parasitoak hartu duen protagonismoa dela eta, arrantzale ohi bati zuzenean galdetu eta zutabea bere hitzekin betetzea erabaki dut:

«Intentzio txarrez zabaldutako mezua izan daitekeela uste dugu arrantzale askok. Eta hala ez bada, gaizki bideratu dute auzia. Euskal arrantzaleoi kalte ikaragarria eragin digu eta kaltea nahita arrain kontsumoaren ohiturak aldatzen saiatzen ari direnek eragin dutela esatea ez legoke sobera. Poliki-poliki, prestatu eta izoztua dagoen arraina sartzen ari gara etxeetara. Anisakisaren albisteak zentzu horretan oztopo bat gehiago jarri dio arrain freskoari. Arrainaren prezioa jaisten hasi da, eta, zeukan prezio baxua ikusita, arrantza munduarentzat kolpe latza izan da.

Euskal kostaldean oso jende gutxi gaixotu da arraina janda, baina, diotenez, gaixotzeko gero eta arrisku handiagoa dago. Dirudie-nez, itsas ekosistemaren parte den zomorroni, itsasontziek egiten dituzten deskarte kopuru handiek mesede egiten diote. Portuan salduko ez dela aurreikusten den arrainaren zati handi bat uretara botatzen dute. Deskartatutako kopurua harrapatutakoaren %50era iristen da. Uretara botatzen den arraina, itsasoan usteltzen gertatzen da eta horrek anisakisaren ugalketari mesede egiten dio.

Europar Batasunak arrantza politika berria aplikatuko du 2015etik aurrera, eta, ondorioz, itsasora botatzen den arrainaren kopurua legez gutxituko du, harrapatutakoaren %7ra mugatu arte. Itsasoari lotuta hartu behar diren erabaki askoren artean, hau bat baino ez da, baina agian anisakisaren auzia konpontzen lagun dezake. Hala ere, arraina ongi egiten bada, ez dago inolako arazorik».

Oraindik euskal kostaldean harrapatutako arrain freskoa jan dezakegula ospatzeko, soziedadean antxoan-eder bat egitea erabaki dugu arrantzaleak eta biok. Gonbidatuak zaudete! •



{ irakurrita }

## Sudanen heriotza zigorra kristautentzat, eta Israelen, bazterketa eta kartzela

joseangel.oria@gaur8.info

**M**eriam Yahya 27 urteko emakumearen kasua salatu du **Amnesty International erakundeak**. Maiatzaren 15ean flagelaldia eta urka ezarri zizkioten eta bere egoera «kritikoa» da une honetan. Hogei hilabeteko umearekin daukate atxilotuta eta aurki bigarren umea jaioko zaio. «Ezin dugu gehiago itxaron. Mesedez, sina ezazu Meriamen exekuzioa geldiarazteko eskaria», nabarmendu du Esteban Beltranek Amnesty International erakundearen webgunean. Sudango Justizia Ministeriora bidaliko dituzte sinadura guztiak, Meriam Yahya aska dezaten eskatuz.

Gobernuz kanpoko erakundeak berak jakinarazi du Meriam Yahyaren senide batek salatu zuela emakumearen «krimena»: gizon kristau batekin ezkondu izana, legedi islamikoak debekatuta daukana. «Adulteriotzat» hartzen omen dute emakume musulman bat gizon kristau batekin ezkontzea.

Epaiketa egin ziotenean, Yahyak bere kristautasunari eutsi zion. Apostasia leporatu zioten, eta urkatuta hiltzera zigortu. Amnesty International erakundeok diote «kontzientzia-presoa» bat dela Meriam Yahya, eta berehala eta baldintzarik gabe askatu beharko luketela.

Sudanen gutxiengoren bateko kide izatea oso garesti ordaintzen dela erakusten du Meriam Yahyaren kasuak, baina bertatik ihes egitea ia ezinezkoa da, **Fides Vatikanoko berri agentziak** ezagutzera eman duen salaketaren arabera. «Israelgo Negev basamortuko atxilotuta eremu bat kristauz beteta dago», irakur zitekeen aste honetan bertan plaza-ratutako informazioan.

Fidesekoen arabera, Holot izeneko atxilotuta zentroa basamortuan dago eta bertan 2.300 gizon daukate Israelgo agintariek, gehienak kristauak. Eritreatik eta Sudandik ihes egindakoak dira, Israelera iristea noizbait lortu zutenak. Maiatzaren 15ean Jerusalemeko Patriarkatu Latinoak hamahiru kidez osatutako ordezkariak bidali zuen bertara, David Neuhauser zuzenduta, Holoten dauzkaten atxilotuek dituzten bizi baldintzen inguruko informazioa biltzera. Horietako bi lagunek baino ez zuten lortu zentrorantz sartzeko baimena.

Gaur egun 2.300 pertsona dituzte Holoten, baina lagun gehiago kabi daitezten egokitze lanak egiten hasiak dira. Egunean hiru aldiz zenbatzen dituzte. Teorian zentrotik irten eta aske mugitzeko aukera dute, baina hori teoria hutsean geratzen da, bazter guztietatik urruti baitago Holot, eta atxilotuek debekatuta baitaude garraio publikoa erabiltzea. Hamar ohe dituzten gelatan igarotzen dute gaua. Atxilotu gehienak Eritreako Eliza Kopto Ortodoxoko kideak dira eta hiru apaiz daude beraien laguntzeko. Egunez egiten duen bero jasangaitzaren berri eman zieten bertakoek bisitariei;

ezer egiterik ez izateak eragiten dien sufrimendua esplikatu zieten, elikadura eskasa izaten dutela eta osasun zerbitzua txarra dela jakinarazteaz gain. «Presoentzako eremu batean daudela pentsatzen duzu zein baldintzatan dauden entzutean», zioen ordezkarietako batek. «Zergatik gaude hemen? Zer krimen egin dugu? Noiz askatuko gaituzte?», omen dira beraien galderak, gehien egiten dituztenak. Eritreara edo Sudanera itzultzeko aukera erabat baztertuta daukate, bertan hil egingo lituzketelakoan. Liburuak eta irakasleak eskatzen dituzte, eguna nolabait bete ahal izateko.

Galdera horien tankerakoak egin zituzten orain hiru hilabete inguru Holoteko zentroaren aurrealdean protesta egin zuten etorkinek. «Tel Avivetako erregimenari eskatu zioten Estatu sionistari iheslari estatusa onartu gabe etorkinak atxilotzeko aukera ematen dion legea bertan behera uzteko», zioen **Noticiaspia.org webguneak** banatutako testu batek. Informazioak eranstean zuten gerratik ihesean milaka etorkin iritsi direla azken urteotan Israelera. Beraien eskubideak bortxatu egiten dituztela-eta, mobilizazioak egin izan dituzte Israelgo agintariak estutu nahian. Horietako bat Tel Aviven egin zuten urte hasieran. Afrikar jatorriko paperik gabeko milaka lagunek esku hartu zuten. UNHCR iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoak berak ere salatu du Israelen jarrera. •



Amnesty International erakundeak Meriam Yahyaren askatasuna eskatzeko erabili duen irudietako bat.

GAUR8

{ analisia } **Jose Angel Oria**

# Geroaz maitemindu

**Z**er ekarri dio Europar Batasunak Euskal Herriari? Zer euskal herritarroi? Zertarako balioko dute bihar emango ditugun botoek? Ba al dago egungo egoera aldatzerik? Tankerako galdera ugari egin ditzakegu herritar gehienek oso urruti sentitzen duten Europar Batasunaren inguruan. Agintariek eta hedabide nagusiek ezarri nahi diguten eta denok jasaten dugun eredia bakarra ez dela azaltzeko, GITE-IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragileak hainbat aditu elkartu zituen Europak Euskal Herrian duen rola bestelako begirada batekin aztertzeke asmoarekin. Orrialdeotan aditu horien hausnarketa batzuk laburbildu ditugu.

Ondorio nagusia da egungo eredia bakarra ez dela. Baina bestelako Europa bat eraiki ahal izateko herri mugimenduen arteko elkarlana ezinbestekoa da, eta bide horretan bere garaian Bruselan sortu zen Herri Enbaxada bezalako tresnak oso interesgarriak dira, Karmelo Landa eurodiputatu ohiak, anekdotak eta guzti, esplikatuz zuzenez.

## Herri Enbaxada

Karmelo Landak eskaini zituen hausnarketarik baikorrenak, berak izan zuen esperientzia oinarrituta. Esti Redondo EHNE base-ritarren sindikatuko kideak nabarmendu zuen herri mugimenduetan jarri behar dela indarra, gauzak aldatu nahi badira. Eta Xabier Lasa ikasleak gogora ekarri zuen Euskal Herriaren borondatea ez dela errespetatu izan, esaterako, herritarrek 1986ko martxoaren 12ko erreferendumean NATOn sartzearen kontrako botoa eman zutenean. «Europako Parlamentua erabil

«Aldaketa, benetan behar duenak baino ez du egiten: emakumeen eskutik etorriko da edo ez da inoiz egingo», idatzi zuen Nekane Juradok Europar Batasunaren inguruko jardunaldien antolatzaileei bidalitako dokumentu batean.

daiteke euskal herritarren interesak defendatzeko, baina estrategia bat jarraituz», zioen Lasak.

Aginteak oso garbi dauka ez zaiola komeni herri mugimenduekin bat egingo duten parlamentariak Europako Parlamentuan egotea. Landak gogorarazi zuen 1989an Estrasburgoko eserlekua lortu zuenean Euskal Herrian genuen testuingurua. Josu Muguruza hil berri zuten, HBko ordezkarien aurkako eraso batean. Tankerako zerbait gertatuko zen handik bost urtera: hauteskunde kanpaina hasi berria zela, bi bonba leherrarazi zituzten Bizkaian eta Atutxa politikari jeltzaleak HBri leporatu zion erantzukizuna. Aginteak ez zuen horrelako hautagaitza bat nahi.

Zergatik? Seguru asko, herri mugimenduen ahotsa eta nahiak europar erakundeetara eramateko abian jarritako ekimenengatik. Horietako bat Bruselako He-

rri Enbaxada izan zen. Bruselan etxe bat erosi eta behar bezala egokitu ondoren, bertatik pasa ziren makina bat giza mugimendu, alderdi, herrialde ezberdinetako ordezkari... Euskal presoan egoera azaldu, Kubaren aurkako blokeo politikoa salatuz, saharar herriari elkartzasuna adierazi... agintarientzat oso deseroso diren gaiak jarri ziren mahaiaren gainean. «Azkenean Garzon epaileak itxi egin zuen. Berriz ireki beharko da», uste du Landak.

Europar Batasunari buruzko jardunaldietan askotan aipatu zuten krisia, gaur egungo egoeraren ezaugarri nagusietako bat horixe baita. Esti Redondok planeta osoko egoera izan zuen kontuan bere diagnosia egitean, ez bakarrik Europako mendebaldeko. EHNEkoak dio «krisia multinazionalek diseinatutako politika bat» besterik ez dela. «Krisia esaten diogun horrek, emergen-

tzia egoerak hobe esanda, zalan-tzan jartzen du gure bizimailari eusterik dagoenik. 2005 arte edo, pribilegiatuak izan gara, guk genuen bizi maila ez baitzen eskubide bat, pribilegio bat baizik. Eskubide bat izateko, gizaki guztiek izan beharko lukete, eta urte haietako hemengo bizimodua beste herrien zapalkuntzan oinarrituta zegoen».

## Urik gabeko herria

Redondok mahai-inguruan nabarmendu zuenez, herritarren oinarrituko beharrak asetzea da lortu beharreko helburuetako bat, baina hori ezin da egin edozein modutan, «herritarrek subjektu politiko bihurtzea behar baitugu». Adibide bat eskaini zuen: «Herri batean ura falta da eta alkateari eskatu diote. Bi aukera ditugu. Lehenengoa litzateke alkateak astero zisterna bat bidaltzea, herri horrek ura izan dezan. Gauzak horrela eginda, alkatearekiko menpekotasuna indartzen dugu. Bigarren aukera litzateke putzu bat eraikitzea. Horrela lortzen dugu herri horren autonomia; horrela garatzeko aukera izango du».

EHNEko kideak uste du Euskal Herrian ez dugula inoiz lurraldea behar bezala zaindu, eta hori oso kaltegarria da «elikadura eta energia burujabetza lortzeko bidean». Durangaldeko kasua deskribatu zuen, bertan baserriarrek lurra izan dezaten aukera gehienak suntsituta daudela nabarmentzeko. Elikadura burujabetza lortzeko bidean azken bolada honetan egindako urrats batzuk ere aipatu zituen, esaterako, salmenta zuzena, kontsumo taldeak, aliantzak... Edonola ere, oraindik elikaduraren alorrean burujabe izatetik oso urruti gaudela adierazi zuen Esti Redondok.



Nekane Juradok aztertu zuen Europar Batasuneko politikak Euskal Herriko pobrezian duen eragina. Datu pilo bat, koadroak, alderaketak eta hausnarretak eskaini zituen, krisia oraindik gehiago larriagotuko dela esateko. «Analisia gogorra da eta ez dugu oraindik barnerrazten, baina hondoa jotzetik urrutitu gaude».

Jurado ekonomialariak bere hitzaldia eskaini zuen egun berean, makina bat gazte atxilotu zituzten Euskal Herrian. «Alternatibarik ez dagoela esan nahi digute atxiloketa horiekin», adierazi zuen.

GITEk antolatutako jardunaldiak alternatibak egon badaudela nabarmendu zuten esku hartzaile guztiek, baina, horretarako, «erresistentzia ez da nahikoa», Landak esan zuenez. Alternatibak eraiki ahal izateko ezinbestekoa da egungo egoera nondik eta zergatik datorren ondo ulertzea, eta horretarako Juradoren hitzaldia ezin aberasgarriagoa izan zen.

## Ongizate estatua

Egungo egoera ulertzeko euskaldunok ere neurri batean ezagutu dugun ongizate estatua nola sortu zen jakitea behar-beharrezkoa da. Bigarren Munduko Gerran daude arrazoiak, Juradok esplikatu zuenez. Sobietarrek askatu zuten Berlin, eta Europako mendebaldeko erresistentzian zeuden herritar gehienek talde sozialista, komunista eta anarkistekin egiten zuten bat, langileen interesak defendatzen zituztenekin alegia, 1929ko krisi ekonomikoaren ondorioak eta zauriak itxi gabe zeudela. «Sobietar Batasunak aurrera egin ez zezan, aurrerarik gabeko klase eta gi-



Greziako egoera askotan aipatu dute Europar Batasunaren inguruko jardunaldietan. Bertako Syriza alderdiak hauteskundeetan oso emaitza onak lortzea espero dute analistek. Irudiko emakumeak lanpostua galtzeko arriskuan zeuden garbitzaileak dira: borroka luze baten ondoren, epaileek arrazioa eman diete.

Louisa GOULIAMAKI | AFP

zarte ituna adostu zuten». Langileek sobietarrek bat egin ez zezaten, beren bizi baldintzak hobetzeko mekanismoak eta tresnak sortu ziren Europako mendebaldean. Horien galera da orain jasaten ari garena.

«Europa Brusela eta Estrazburgo dira, baina gainerako erakundeak ere bai», gogorarazi zuen ekonomialari marxistak, azken urteotan ezarri zaigun zorpetze maila ere (%3koa baino txikiagoa izan behar du defizit publikoak) «Europatik datorrela» esan aurretik.

Juradok egiten duen irakurketaren arabera, ongizate estatua desegiteko urratsak ematen ari dira etengabe; esaterako, lanpostuak babesteko legedia hankaz gora botatzen ari dira. Gainera, benetako «estatu kolpeak» izan dira azken urteotan Europar Batasuneko estatu batzuetan, Grezian 2011ko azaroan eta Italian handik hilabetera gertatu moduan. «Herritarrek aukeratu ez dituzten agintariak ezarri zituzten. Gaur egun horretarako indarra finantza sistemak du». Gainera, Gobernu askotan Lehman Brothers eta Goldman Sachs finantza-zerbitzuetako konpainietako goi kargu izandako politikariak sar-

tu zituzten, Estatu espainolean esaterako. «Prozesuak ez du inolako zilegitasun demokratikorik», esan zuen.

Ondasunak eta boterea kentzen dizkigute, sektore aberatsenen mesedetan. Europar Batasuneko agintariak prozesu horren konplize baino gehiago ere badira, politika ekonomikoak eskaintzen dituen tresnak egoera bere onera ekartzeko erabili beharrean pertsona gutxi batzuek botere gehiago pila dezaten erabiltzen dituztelako. «Ekonomia mozorrotutako ideologia» besterik ez dela gogorazteaz gain, azken urteotan euskal herritarrok jasan behar izan dugun bilakaera deskribatu zuen Juradok.

## Banaketa injustua

Barne produktu gordina era justuan banatuz gero, guztiok ondasun kopuru bera izango bagenu, bakoitzari urtean 29.112 euro tokatuko litzaiguke (sei pertsona bizi diren etxe bati, ia 180.000 euro). Baina langileon soldatak muga horretatik oso urrutitu daude, eta beherako joera garbia dute gainera. Eta pentsiodunak, alargunak eta abar okerrago daude, jakina!

Egoera injustu horri aurre egiteko tresnak baditu Estatuak, zergak eta aurrekontuak esaterako. Hori egin beharrean, herritarren egoera kaltetzen dute, aberatsenei zergak jaitsi edo kenduta, besteonak igo ondoren. «Sektore publikoak Euskal Herrian ez du ezer egiten desberdintasun horiek zuzentze aldera», nabarmendu zuen, egoera horretan gehien sufritzen ari dena emakumea dela esan aurretik. «Hau da Europatik datorriguna, denbora askoan gertatzeko iritsi zaiguna».

Ekonomialariak hankaz gora bota zituen Euskal Herrian askotan entzuten ditugun «mito» batzuk, esaterako, gurean «ia Eskandinaviako herrietan bezala» bizi garela, edo kontzertu ekonomikoari esker hemen arazo gutxiago izaten ditugula: «Baina Madrilen erabaki zuten BEZa %21era igotzea, eta euskaldunok ere %21 ordaindu behar dugu». Horregatik gaur egungo egoeraren aurrean intsumitu izateko eskatu zuen. «Lehiakortasuna deitzen diote, baina guztionak ziren gauzen pribatizazioa baino ez da».

«Aldaketa, benetan behar duenak baino ez du egiten: emakumeen eskutik etorriko da, edo ez da inoiz egingo», idatzi zuen Juradok GITEkoei bidalitako dokumentu batean. Beraien dira egungo egoerak gehien kaltetzen dituenak, eta «guztiona, borroka feminista», Karmelo Landak esan moduan.

«Geroaz maitemintzeak bizitako denbora bizkortu egiten du. Gaztetu egiten gaitu, eta aursardia itzultzen digu». Horrela bukatu zuen Jurado ekonomialariak bere ekarpena, aurrera ilusioz begiratzen. Bihar bertan dugu gaztetzen hasteko aukera eder bat.



**Oier Gorosabel**  
Fisioterapeuta eta osteopata

## Eskuak txindurrituta

**E**skuak txindurritzea lepo inguruko arazoaren ohiko sintoma da. Normala den bezala, askotan jendeak ez du ikusten zerbikaletako eta eskuetako arazoaren arteko lotura. Nahikoa arrunta izaten baita sintomak jatorrizko arazotik urrun (batzuetan oso urrun) agertzea; hori dela eta, hobeto uler dezakezue zergatik “galtzen” dugun fisioterapeutok hainbeste denbora eskua sartu aurretik (paziente batzuen desesperaziorako). Izan ere, historia kliniko ona eta esplorazio hobea dira arazoaren sustraian bete-betean jotzeko sekretuaren muina. Besoetako kalanbre sentsazioak multzo handi bitan bana ditzakegu: batetik odol zirkulazioarekin lotutakoak, eta, bestetik, bizkarretik ateratzen diren nerbio sustraiekin zerikusia dutenak.

Odol zirkulazioak eragindako txindurritze sentsazioak, orokorrean, beso eta esku osoa hartzen du. Atera kontuak: Rita Hayworthen eskularrua jantzita izatea bezalako sentsazioa, baina txindurritzeak berak eraginda! Besoko zirkulazioa oztopatzen denean, herriko urhorniketa eteten denean legez izaten da: ixten den giltzaren arabera, auzo batzuek edo besteek izango dute ur falta. Baita batzuetan herri osoak ere! Arazo gehienak klavikula-omoplato inguruko odol hodi nagusietan izaten baitira, eta, horren ondorioz, beso osoa gelditu daiteke lotan. Zirkulazioaren oztopo hori arrazoi anitzengatik ematen da. Adibidez saihets, klavikula eta omoplatoa batzen duten ligamendu eta faszien desorekek odol hodiak irato ditzakete; *pectoralis minor* muskuluaren laburdurak haren azpiko pasabidea estutu dezake; hiperzifosi posturak (konkorra bizkarrean, sorbaldak aurrerantz) hori guzti hori errazten du; toraxaren erdigunean dagoen mediastinoko tentsioak ere bai. Odol hodi nagusiez gain, noski, besoan zehar doazen arteriek ere muskuluen artean pasatu beharra dute, eta horien desorekek zirkulazioan eragin dezakete, noski. Kasu horretan besoaren periferian sentituko litzateke txindurritzea, estutasunetik behera. Tratamendurako, ezinbestekoa izaten da odol zirkulazioa itota dagoen puntua


zehaztea, eta batzuetan ez da erraza izaten; fisioterapia aldetik proba eta test funtzionalak erabiltzen ditugu nagusiki. Oztopoaren kokapena zehazteaz gain garrantzitsua izango da arrazoa ere jakitea, horrek markatuko baitu neurri handi batean arazoa konpontzeko erabiliko dugun teknika. Helburua: zirkulazioa oztopatzen ari den egitura orekatztea, eta odolaren bidea erraztea.

Lehenago aipatu dugunez, txindurritze sentsazio horren beste jatorri nagusia nerbioak dira: ornoetatik ateratzen diren nerbio sustraiak, hain zuzen ere. Bizkarreko arazoaren eraginez kaltetzen dira eskuarki, eta halakoetan besoaren zati bat bakarrik txindurritzen da. Izan ere, nerbio sustrai bakoitzak kontrolatzen dituen azalaren zatiak ezagunak dira, adibidez: C6 sustraia ukalondotik lehen eta bigarren atzamarreraino; C7 sustraiak eremu txiki-txikia hartzen du, hirugarren atzamarra bakarrik; C8 sustraiak, berriz, laugarren eta bosgarren atzamarretik ukalondo barrualderainoko azala hartzen du... Horrela, sintomen kokapenak arazoaren jatorriaren pista garrantzitsua emango digu. Hala ere ez da hain erraza: nerbio zuntzak, bizkarre-

zurretik irten ahala, saretzen hasten baitira *plexus brachialis* delakoan. Horrek esan gura du besora ailegatzen diren amaierako nerbioak ez datozela sustrai bakarretik, baizik eta maila bat baino gehiagoko ekarpena dutela; are gehiago, bidean nerbio sistema autonomoaren zuntzak ere sartzen zaizkie, ia gorputz osoko neuronen interferentziarekin... Behin bizkarreko sustraietatik irtenda, nerbio zuntz eta odol hodi nagusiak batera joaten dira. Horregatik, lehen aipatu ditugun arrazoei nerbioen funtzioa ere oztopa dezakete, odol zirkulazioaz gain. Horrek guztiak nahikoa korapila dezake diagnostiko egoki bat lortzea. Izan ere, horixe da kasu honetan zailena: nerbioen funtzioa zerk eta non oztopatzen duen jakitea. Behin hori lortuta, fisioterapia tratamendua zehaztea lan erraza izaten da.

Hala ere, emandako azalpen ulergaitzekin ez estutu, eta jakin ezazue eskuetako txindurritze gehienek hobera egingen dutela terapia simple eta merke batekin: igeri egitea. Ahaztu, beraz, idatzitako guztia, eta... dzanga uretara! •

<http://fisiolantaldea.blogspot.com>



Eskuak txindurritzea lepo inguruko arazoaren ohiko sintoma da. THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

# Eserlekua lortu edo ez

**H**auteskundeak ditugu bihar Euskal Herrian. Euskal Herri osoan. Estrasburgoko Parlamentua hautatzeko bozketak dira, eta, horrenbestez, Europa izan da hizpide egunotan. Behar baino gutxiago, kanpainak ez baitu interes handirik piztu, egia esan. Aldi berean, hauteskundeok, beste guztiek bezalaxe, bertako egoera politikoaren gaineko irakurketa egiteko aukera emango dute.

Mapa politikoa deritzan hori azalduko da, eta indar bakoitzaren sendotasuna eta garapena ikusi ahal izango da. Halere, egiari zor, hauteskunde hauetan izango den abstentzio izugarriak mapa politikoa dezente desitxura dezake. Alegia, hautu zehatz bat hauteskunde hauetan eremu geografiko batean lehen indarra izateak, esate baterako, ez du esan nahi beste hauteskunde batzuetan (dela udalerako, dela parlamentu autonomiko jakin baterako, dela Madrilgo Kongresurako...) nagusi izango denik, ezta gutxiagorik ere. Hauteskunde bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Aldi berean, bozaren banaketa ere asko aldatzen da ehunekoetan abstentzioa handia edo txikia izan. Izan ere, abstentzioa gutxitzeak edo handitzeak ez du eragin proportzional bera izaten alderdi guztietan.

Nolanahi ere, jende gutxiak bozkatuko duela aurrera daiteke, eta, beraz, boz poltsa txikiak, beste hauteskunde batzuetan baino txikiagoak, izango dituzte alderdi guztiguztiek. Orain dela bost urteko hitzorduan, alderdi bozkatuena (PSOE) ez zuen 270.000 bozko muga gainditu Hego Euskal Herrian. Bigarrenak (EAJk) 212.000 atera zituen. Huskeria EAEko azken bozketatan atera zituenekin alderatuz gero.

Europako hauteskundeetan lortutako boz kopuruak askoz ere handiagoak izan dira Estrasburgoko bozketak beste hauteskunde batzuekin batera egin direnean. Azkenekoz, 1999an gertatu zen, Lizarra-Garaziko garaian. Udaletako eta Europako hauteskundeak egun berean izan ziren, eta giro politikoa bizi-bizi zegoen. Adibidez, emaitza historikoak izan zituen Euskal Herritarrok hautagaitzak Europako hauteskundeetan; 280.000 boz lortu zituen Hego Euskal Herrian, %35,45 abstentzioarekin, bihar egongo dena baino dezente txikiagoa. Koldo Gorostiaga atera zen eurodiputatu.

Horrenbestez, esan daiteke oraingoan lehen indarrak ere nekez gaindituko duela lau lurraldeetan 250.000 bozko muga. Inor 300.000 boz lortzera iristea mirakulua litzateke. Datu horiek oso kontuan hartu behar dira bere indarra Euskal Herrian duten hautagaitzen aukerak aztertzerako garaian. Hobe esan, EH Bilduren hautagaitzaren aukerak aztertzerako garaian. Gainerako euskal hautagaiek, izan ere, badakite jada helburua lortuko duten ala ez.

CiUrekin aspalditik duen koalizioari esker, EAJk seguru du berea. Estatu mailako alderdi handietan dauden euskal hautagaiek zerrendan duten posizioari lotuta dute etorkizuna. EH Bilduko Josu Juaristirentzat, berriz, ezinbestekoa da Euskal Herrian bertan bilduko duen boz kopurua. Duela hilabete pare bat adituek ziotenez, eserlekua 270.000 bozen bueltan ibiliko da oraingoan, nahiz eta azken asteotan kopuru hori txikiagoa izan daitekeela dioen batek baino gehiagok, abstentzioa oso handia izango delakoan. Jua-

Esan daiteke oraingoan lehen indarrak ere nekez gaindituko duela lau lurraldeetan 250.000 bozetako muga. Inor 300.000 boz lortzera iristea mirakulua litzateke

ristik puska handiena, nabarmen, euskal lurraldeetan bildu beharko du (beste garai bat zen HBk, Txema Montero hautagai zuela, Estatuan 100.000 boz lortu zituen hura). Orain dela bost urte, Iniziatiba Internazionalistak eta ERCrekin koalizioan zihoazen Aralarrek eta EAK 200.000 mila boto lortu zituzten denen artean lau lurraldeetan. Bi galdera daude orain mahi ganean: kopuru horren inguruan ibiliko ote da EH Bildu? Eta halako kopuru bat nahikoa izango al da –Galizian eta Estatuan lor daitezkeen bozekin batera– Josu Juaristiren Europako aulkia lortzeko? Bi galdera horiek bihar izango dute erantzuna.

Edozein balorazio egiteko eserlekua lortzea edo ez faktore zentrala izango da. Bozen portzentaje txikia ez du izango EH Bilduk. Leku askotan lehen indarra izango da. Baina eserlekua atera edo ez izango da jendartearentzat daturik adierazgarriena. •

## ESKUBIDE SOZIALEN GUTUNA

### Eredu ekonomiko eta sozial berri bat lortzeko bidean ezinbesteko mugarrria

📁 JENDARTEA / oihana.llorente@gaur8.info

Euskal herritarren eskubide sozialak zerrendatu, eta justu eta solidarioagoa izan nahi duen jendarte berri baten ardatzak jasoko ditu gaur zortzi argia ikusiko duen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak. Auzolanean, herri prozesu zabal baten bidez eraiki da gutuna. Inorena, eta, aldi berean, herritar guztiena izan nahi duen karta.

**E**uskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna astebete barru ezagutuko dugu. Gehiengoaren interesak eta gurean bizi diren askoren sentipenak jasoko dituen proposamenaren azken lerroak idazten ari dira uneotan. Euskal herritarren eskubide sozialaren garantia ahalbideratu nahi du dokumentuak, eta, bide batez, eskubide horiek bermatuko dituen eredu sozioekonomiko berri baten ardatzak jaso nahi ditu.

Urtebete iraun du haurdunaldiak, baina gutuna ez da umezurtz munduratuko, makina bat herritarrek parte hartu dute-eta bere ernaldian. Mugimendu sozio-sindikalak pasa den urteko maiatzean Eibarren egin zuen batzar nazionalan ipini zuten lehen harria. Eta ordutik, mimos adostutako bide orri baten baitan eman ditu urratsak.

Egoera ekonomiko ezin ilunagoan jaioko da gutuna. Krisi gorri-gorian, baina testuinguru markurra aldaketarako aukera ere izan daitekeela sinetsita, tresna honen balioa defendatu du

# 1.150

**herritar inguruk hartu dute parte abian jarritako herri prozesuan. Horietatik 550 emakumeak izan dira eta 600 gizonak.**

# 15-81

**urte bitartekoak izan dira herri zein auzoetan egindako batzarretan bildutakoak.**

Eduarne Larrañagak. Kartaren erredakzioan buru-belarri harrrapatu dugu oiartzuarra. Haren ustez, krisiak ziklikoak dira eta bidegurutze bat ezartzen dute: «Ereduan sakondu edo norabidea aldatzeko aukeraren aurrean ipintzen gaituzte krisiek. Espainiar zein frantses estatuetan eta, beraz, Euskal Herrian, onartutako erreforma desberdinekin, tamalez, lehengoaren alde egiten ari dira». Larrañagaren iritziz, erabaki «oker» horiek herritarrengan sekulako eragina izan dute, pobreak pobretuz eta aberatsak aberastuz.

Urteak dira prestazio sozialaren gabezia, etxe-gabetzeak, langabezia edota sektore publikoak jasaten dituen murrizketak salaketarako osagai direla. Eskubide urraketa lazgarri horrek sindikatu eta eragile sozialak biltzera ere eramán zituen, eta 2009. urtetik aurrera elkarlanean ari dira Gune deritzoten espazioan. Ordutik, makina bat aldiz atera dira kalera, eta nahi baina gehiagotan egin dute greba. Murru bat eraiki eta «kapitalismoan sakontzeko asmoa» duten neurriak geldiarazi nahi zituzten martxan jarritako herri protestarekin. Eskuak



### CARLOS ASKUNZE

«Bertan bizi eta lan egiten dugunon eskubideak zehaztea ezinbestekoa da»

REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko koordinatzailea da Carlos Askunze eta urte honetan guztian buru-belarri aritu da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna errealitate egiteko lanean.

Gustura aritu da Askunze gutunaren osaketan. Partekatzen den lurraldearen oinarrien eraikuntzarako ezinbestekoa

deritzo-eta denen artean, modu kolektibo eta demokratikoan, bertan bizi eta lan egiten duten herritarren eskubideak zeintzuk diren zehaztea. Hala uste du Askunzek, eta ariketa horrek uste du, izan ere, «pentsamendu neoliberalak eta ekonomiak politikari lekua kendu» diotelakoan dago. Espazio horiek

berreskuratu eta bizitza duin bat aurrera eramateko beharrezkoak diren eskubideak zabaldu behar direla uste du REASeko kideak; «jendarte justuago, solidarioago eta orekatuago baten mesedetan dauden eskubideak», gaineratu du.

REAS sarea zabala eta anitza da, eta sareak bere osotasunean gutunaren osaketan parte hartu ez

duen arren, sareko kide eta talde ugari aritu dira zuzenean lanean. Horretaz gainera, joan den martxoaren 15ean bazterketa sozialaren ondorioak eta hari aurre egiteko alternatibak gainera batzar berezia antolatu zuten Bilbon, eta 70 lagunek hartu zuten parte. Talde sustatzailearen esku daude bilera horretan ateratako ekarpenak.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren inguruan erakunde sindikal eta sozialak batu eta denen artean dinamika parte hartzaile zabal bat martxan jartzeko ahalegin handia egin dela uste du Askunzek. Haren ustez, baina, bestelako sare eta erakunde sozialek ere lekua izan behar dute prozesu honetan, eta komunikazioak eta mobilizazioak

zerean handiagoa izan beharko lukete. Hala eta guztiz ere, datorren astetik aurrera irekitzen den fase berrian garrantzi berezia izango dutelakoan dago, eta, beraz, ilusioz eta gogoz begiratzen du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak irekiko duen testuinguru berria.

Guztira 60 enpresa eta entitate batzen dira REAS sarean, arlo ekonomikoan baina irizpide alternatiboekin aritzen direnak guztiak; kooperatibak, gizarteratze enpresak, birziklapena oinarri duten enpresak edota elikadura burujabetza bultzatzen duten merkataritza enpresak, besteak beste. Kapitalismotik aldentzen diren alternatibak bultzatu eta aldaketa sozialerako tresna izan nahi du REAS sareak.





Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren hirugarren asanblada, Donostian. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

gurutzatuta erasoaldien zain egoteaz aspertuta, alabaina, euren ekinbide propioa erabaki eta eredu propio bateranzko tresna bat eraikitzea erabaki zuten orain dela urtebete.

#### MARRA GORRIAK ETA IPARRA

Geroztik, beste 11 kiderekin batera, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna erredaktatzeko mandatua duen talde sustatzaillean dago Larrañaga. 27 ataletan barnebilduko dituzte euskal herritarren betebeharrak eta eskubide sozialak, eta, era berean, ardatz horiek justu eta solidarioagoa izan nahi duen jendarte berri baterako oinarri izan nahi dute. «Zerrendatzen diren eskubideak maila batean badira gure marra gorriak, hortik pasatzea onartuko ez ditugun urraketak izango dira-eta. Tamalez, baina, minioak diren moduan gure iparra ere badira, egungo eredu oinarritzko eskubide horiek bermatzeko gai ere ez delako», azaldu du Larrañagak.

Edukiaren nondik norakoak ezagutzeko astebete itxaron beharko dugu, baina, aurretik, atzera begira ipini eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gu-

## NORMA MAFFARE

«Gutuna berea dena aldarrikatu eta nahikoa dela dioen herri baten oihartzuna da»

Hegazkin batean sartu eta Ekuador jaioterra atzean utzi zuen 2002an Norma Maffarek. Etorkin gehienek antzera, aurrera eta atzera ibili beharrean izan da urte hauetan guztietan. Ozeanoa zeharkatu eta berehala ezagutu zuen Euskal Herria. 11 urte daramatza jada gurean, gehienak Bilbo inguruan; izan ere, Bilbo zainetan daramala dio.

Gutuna idaztea «txalogarria» dela irizten dio Maffarek, eta gainontzeko herrialdeek ere prozesu hau eredu gisa hartu beharko luketela uste du. «Hala egin beharko lukete, bai behintzat gizon eta emakumeak berdintasunean bizitzeko aukera galtzen ari diren herrialde horietan guztietan», gehitu du.

Etorkin den heinean, gutuna etorkin ororentzat garrantzitsua dela uste du. «Hemen gaude, hemen bizi gara eta jendarte honen parte gara», dio irmo. Gainerako herritarren antzera euren eskubideak ere maila ezberdinetan urratuak izaten ari direla sentitzen dute etorkinek, eta, Normaren arabera, etorkinek eta etorkin ez direnek, herritar guztiak dute bizitza duin bat izateko eskubidea eta betebeharrak.

Gutuna erdituko duen prozesuak «oniritzia eta aitortza» behar lukeela uste du Normak. Haren oinarrian, gainera, azken urteetan jendarte gertatzen ari denaren gaineko «ikerketak eta hausnarketa prozesu luze eta sakona» egon dela sinetsita dago. «Herritarren mesfidantza, ikara,

itoaldia, etsipena eta amorrua egunetik egunera handiagoak dira, bai eta ezezagutzari diogun beldurra ere». Hala deritzo Normak, eta sentimendu horiek guztiak izan dira, bere aburuz, gutunaren motorra.

Haren ustez eredu garria izan da prozesuaren aniztasuna eta ziur da nahi izan duen herritar eta eragile orok parte hartzeko aukera izan duela. Bilera, tailer zein ekarpen bidez jasotako iritziak, herri baten desadostasunaren ispilu direla uste du. «Nekatu dagoen eta nahikoa dela dioen herri batek hitz egin du –dio Normak–. Bestelako jendarte eta estatu bat nahi dituen herria». Haren ustez, gutuna berea dena aldarrikatzen duen herri baten oihartzuna da.



Munduko emakumeak biltzen dituen Babel elkarteko kidea da Norma. Astelehenero 20 eta 30 emakume artean elkartzen dira Bilbon duten egoitzan. Babel barruan Brujas y Diversas izena duen taldea dago, eta hark hartu du emakume etorkinen nahiak eta beharrak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren talde sustatzailerak eramateko ardura.

Abenduaren 14an Bilbon egindako Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren laugarren asanblada.  
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

tunak abian jarritako herri prozesuan jarri nahi izan dugu arreta. Izan ere, gurean gutxitan ikusi ohi den prozesu zabal, anitz eta horizontala izan da, edo, bederen, izateko hamaika saiakera egin ditu.

#### ERRAZTATZAILEAK LAGUN

Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako 113 herri eta auzotan aurrera eramanean den prozesuak, atentzioa mamian ipintzeaz gainera, modu eta moldetan ere jarri du. Talde sustatzaileak berak oreka du marka, bai gizon eta emakume kopuruari, bai adinari, bai herrialdeen ordezkari-tzari dagokionez. Hala, eskubide sozialen defentsan trebatutako dozena bat lagunek osatzen dute talde eragile hau.

Joxemi Zumalabe fundazioaren atea jotzea izan zen lehen egitekoa, eta bertoko kideen ilusioa eta gogoia aurkitu zituzten



## SAIOA IRAOLA

# «Elkarlana eta elkar ezagutza izan ditu ezaugarri nagusi prozesuak»

Euskal Herriko Bilgune Feministako kide eta bozeramailea da Saioa Iraola, eta, aldaketaren bidean, kolektibo eta sektoreen arteko elkarlana eta elkar ezagutza ezinbestekoa dela iritzita, buru-belarri aritu da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren osaketan.

Egungo egoera sozioekonomikoa «larria» dela esan, eta, berehala, jendarte ereduaren inguruko hausnarketa kolektiboa egitea beharrezkoa dela gaineratu du Iraolak; «jendarte eredu justu eta humanoago bat

sortzeko, egungo sistema kapitalista patriarkalari ezezkoa eman eta guk geure eredu propioa osatzeko ariketa guztiz beharrezkoa da», gaineratu du.

Emakumeen presentzia nabarmena izan da prozesu osoan zehar. Parte hartzaileen ia erdia emakumeak izan dira, eta, talde sustatzailean ere, oreka mantendu da. Ikuspegi feminista hasieratik bukaerara arte txertatuta egon zedin, gainera, mugimendu feministako kide bat ere egon da talde eragile horretan. Herriz herri parte hartu arren, asanblada

feminista bat ere antolatu zuten Bilbon, eta, bertan, 120 emakumek hartu zuten parte. «Bestelako herri eredu bat lortzeko bidean feministon parte hartzea ezinbestekoa delako elkartu ginen –aitortu digu–. Ikuspegi feminista batetik beharrezkoak ikusten ditugun aldarrikapen eta tresnak proposatzeko, eztabaida mahaira zer gai eramane erabakitzeko edota prozesua bera feminista izan dadin eman beharreko pausuak zehazteko bildu ginen».

Behin asanblada feminista eginda, bertan jasotako ideiak eta



proposamenak bildu eta herri zein auzoetara itzuli ziren. Helburua argia: emakumeek asanbladetan hausnarketa horiek tresna gisa erabiltzea.

Prozesuaren ezaugarritza «anitz» izan dela iritzi dio Iraolak, eta bereziki interesgarriak iruditu zaizkio sektore batzuetan eman diren eztabaidak; emakume etorkinenak edota dibertsitate

funtzionala duten pertsonenak jarri ditu adibide moduan. «Inbertitu den denbora eta energia dezentea izan da, lan neketsua izan da, baina, aldi berean, aberasgarria izan da», dio pozarren.

Bestelako herri eredu bat eraikitze bidean, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna pausu oso interesgarria dela uste du Iraolak, «zer herri eta zer jendarte eredu nahi dugun identifikatzeko lanean indarrak eta energiak biltzera behartu gaitu prozesuak, era horretan zer ez dugun nahi errazago ikusi dugu». «Eta ikuspegi feminista batetik oso ariketa interesgarria izan da», gehitu du.

Bilgune Feministako kide honen aburuz, elkarlana eta elkar ezagutza izan ditu ezaugarri nagusi prozesuak, eta, edozein aldaketaren aurrean, lehen pausua hori dela sinetsita dago.

atearen bestaldean. Ordutik, fundazioko beste hainbat kiderekin batera, prozesuan erraztatzaile papera jokatu du Olatz Dañobeitiak. Talde sustatzailearen dinamika ahalbidetzeaz gain, prozesuari lotutako beste eremuetako behar metodologikoetan laguntzen aritu da bizkaitarra.

#### DENENA, ETA, ALDI BEREAN, INORENA

Iazko udararen bueltan egin ziotuen talde sustatzaileak lehen bilerak, eta, Dañobeitiak gogora ekarri moduan, taldea trinkotzean jarri zuten arreta: «Espazio informalak partekatzen saiatu ginen elkar ezagutzeta eta konfiantza sustatzeko, izan ere, harreman pertsonalek dimentsio politikoa dutela sinetsita gaude», kontatu digu.

Oharkabean pasa ohi diren baina garrantzitsuak diren mila-xehetasun horietan arreta jarri aritu ziren Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunari harrera egin eta oinarri ideologiko nagusiak zehazteko printzipioak osatzen. Talde lanean, norbera berean tematu gabe, kolektiboan eraiki zituzten printzipio horiek. Denena, eta, aldi berean, inorena ez zen ekarpen kolektiboa erdituz.

# 113

**Hego Euskal Herriko herri eta auzotan garatu da prozesua. Ipar Euskal Herrian herenegun egin zen lehen batzarra eta aurrera begirako pausuk zehaztu dituzte.**

# 100

**pertsona inguruk hartu dute parte batez beste Eibar, Altsasu, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Berriozarren egin diren sei asanblada nazionaletan.**

Prozesu herritarra, anitza, irekia eta zabala osatu nahi zuten. Baina horiek etiketak baino gehiago izan zitezen, material adituak diren Urtxintxa eskolako, Joxemi Zumalabe fundazioko edota Hegoa institutuko kideez osatutako metodologia lantalde bat osatu eta planteamendu metodologiko berritzaile bat jarri zuten mahai gainean. «Zailtasun gehien dituzten kolektiboetara atek ireki nahi genizkien, aniztasunari leku egin. Eta aniztasun hori, zailtasun gisa baino, aukera moduan baliatu nahi genuen», azaldu digu Larrañagak.

Norabide horretan, sektoreen gainetik, eztabaida eta hausnarketen gunea herri eta auzoek izan behar zutela ebatzi eta lehenetsi zuten. Hori izan zen lehen erabakia, eta ikasleak, langileak, erretirodunak, gazteak, etorkinak, emakumeak edota gizonak batu dituen hamaika espazio eraiki dituzte Euskal Herri luze zabalean. Tuteran hasi, Zangozan jarraitu, Okondotik igaro eta Bilboko hamalau auzoetarako iritsi baita eztabaida prozesu hau. «Herri eredu sozial bat eraikitzea bagoaz, denen artean, elkarri helduta, egin behar

**Gutunak abian jarritako herri prozesuan jarri dugu arreta. Izan ere, gurean gutxitan ikusi ohi den prozesu zabal eta anitza izan da, edo, bederen, izateko saiakerak egin ditu**

**Talde lanean, norbera berean tematu gabe, kolektiboki eraiki zituzten printzipio ideologikoak. Denena, eta, aldi berean, inorena ez zen ekarpena erdituz**

dugu aurrera», nabarmendu du Larrañagak.

#### HERRIAK SEKTOREEN GAINETIK

Hala eta guztiz ere, kolektibo batzuen premia bereziak direla medio, edo hala ebatzi dutelako, maila nazionalako hainbat lan talde sektorial ere osatu dira. Horietan, emakume edota etorkinen eskubideez, ezgaitasunen bat duten pertsonen egoeraz, aniztasun sexualaz, bazterketa sozialaz edota euskararen inguruan aritu dira, besteak beste.

Eztabaida prozesua herri eta auzoetan martxan jartzeko beharrezkoak ziren talde dinamizatzaileak prest edukita, 180 lagun inguru elkartu zituzten metodologia mintegiak egin zituzten. Eztabaidaren mamiari heldu aurretik, diseinatutako prozesuak zituen bost urratsen nondik norakoak aurkezteaz

gain, 66 orrialdez osatutako gida metodologikoa banatu eta makina bat dinamika berritzaile berri eman zen bilerotan. Herri eta auzoen desberdintasunak aintzat hartzeko pistak eta dinamika anitzen zehaztapenak jaso zituzten parte hartzaileek.

Asanblada, *world cafe* edo tailerrez gain, antzerki, *collage* edota ideien dastatze azokak egitea gomendatzen zuten mintegietan, betiere parte hartzea eta aniztasuna sustatzeko helburuarekin. «Sekulako arrakasta izan zuten mintegiak –hasi zaigu kontatzen Larrañaga–, buroak ireki eta parte hartzea bultzatzeko hamaika modu egon badirela ikasteko aukera izan genuen. Denok ez baitugu zertan jende aurrean aritzeko gai izan behar! Dinamizatzaileak hezteko aukera aparta izan ziren bilera haiek».

## PAUL BILBAO SARRIA

### «Krisia aitzakia bihurtu da euskararen berreskurapena galgatzeko»

«Ba al dago Eskubide Sozialen Gutunaz hitz egiterik hizkuntza eskubideak ez badira jasotzen?». Galdera hori paratu digu Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren idazkari nagusia den Paul Bilbao Sarriak. Berak ezetz uste du.

Bilbaoren ustez, eraldaketa soziala helburu duten horrelako prozesu edo dokumentuak jorratzen direnean, lehenik eta behin errealitateari erreparatu behar zaio. Euskal Herriari dagokionez, ondorioz, berezko hizkuntza egoera gutxiagotuan

dagoela aintzat hartu beharra dago; Bilbaorentzat nahitaezkoa da gutunak komunitateari egoki ikusten duen hizkuntza politika abian jartzeko eskubidea aitortzea.

Euskalgintzako erakunde garrantzitsuenen bilgunea den heinean, horrelako foroetan ekarpenak egin eta euskararen beharrak ere txertatzen direla bermatzeko joera du Kontseiluak. Erakunde gisa gutunaren oinarri eta printzipioei egin zien lehen ekarpena. Horrela, «euskal jendartearen komunitate anitz, inklusibo eta solidario bat

eraikitzeko garaia» zela jasotzen zuen testuan, euskalduna ere erantsi zuten. «Geuk ere ikusi ahal izan dugu krisia bera aitzakia bihurtzen dela euskararen berreskurapena galgatzeko», salatu du.

Erakunde gisa egindako ekarpenaz harago, euskalgintzako eragileek lan bilera berezitua antolatu zuten Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren bultzatzaileekin, eta bilera horretan hizkuntza eskubideak, kultura eskubideak, lurraldearen berrantolaketa soziala, jatorri



aniztasuna eta hezkuntza eskubideak landu zituzten. Bertan egindako proposamen guztietan parte hartzaileen erabateko adostasuna izan zela ekarri du gogora Bilbao; «eskubide sozialak eta hizkuntzaren inguruan euskalgintzako eragileok antzeko pertzepzioa dugula frogatu zen bertan», dio berez buruaz seguru.

Prozesu hauek luzeak eta mantsoak izaten direla argi du Bilbao, baina pozarren dago azken emaitzarekin: «Askotan entzun izan dugu gizarte mugimendua ahaldunderantz jo behar dela, eta horrelako prozesu baten amaieran hori irudikatu beharko litzateke. Kultura, helburu eta zio arras desberdinak dituzten hamarnaka eragile gai izan dira eraldaketaren oinarriak adosteko, eta, nola ez, eraldaketa hori euskaratik eta euskaraz egingo dela erakusteko».

Eskubide Sozialen Gutuna eraldaketarako funtsezko tresna dela erabat sinetsita dago Bilbao. Haren ustez, gainera, unibertsaltasunaren printzipiotik abiatzen dira eskubide sozialak; hori bai, «hizkuntza arrazoiengatik bereizkeriari ere» irtenbidea eman behar zaiola sostengatu du Kontseiluko idazkari nagusiak.

**«Zailtasun gehien dituzten kolektiboei atea ireki nahi genizkien, aniztasunari leku egin. Eta aniztasun hori, zailtasun gisa baino, aukera moduan baliatu nahi genuen»**

**Erasoaldien aurkako murrutik eztabaida eta hausnarketara igaro bezala, teoriatik praktikara jauzi egitekotan da orain Euskal Herriko mugimendu sozio-sindikala**

Abenduaren bueltan ekin zioten azkenean benetako eztabaidari. Mamian sartu eta eskubideak, aldarrikapenak eta tresnak zerrendatzen igaro zituzten orduak. Hamaika gai potolori egin diote kosk, lan, enplegu, osasun edota hezkuntza eskubideak tarteko. Erabakitze eskubideaz ere luze aritu dira, herri moduan geroa erabakitze ahalmenaz edota norberak bere bizitzaren edo heriotzaren gainean erabakitze izan beharko lukeen eskubideaz. Eztabaida filosofikoak batzuk, askoz praktikoagoak besteak; denak, ordea, herritarren interesekoak.

Hala aitortzen dute datuek, izan ere, 1.200 herritar inguruk

Talde sustatzaileak makina bat bilera egin ditu urte honetan zehar.  
Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS



hartu du parte urtebete iraun duen prozesuan, eta milaka izan dira eskubideen gainean egingako ekarpenak.

Datorren larunbatean ereindako haziaren lehenengo uzta jasoko dute. Bilbon izango dute zita, bertan izango baita azken asanblada nazionala. Bidea, baina, ez da hemen amaituko, gutuna onartzearekin batera aurrera begirako estrategia adostuko dute-eta. Xehetasun guztiak ezagutzeko itxaron beharko dugun arren, lau zutabe nagusitan sostengatuko da mugimendu sozio-sindikala berriaren lana. Hala aurreratu digu bederen Larrañagak. Haren aburuz, gainera, mobilizazioaren alorra, atxikimenduak biltzeko lana, interpelazio instituzional eta politikoa, eta alternatiben eraikuntza izango dira etorkizuneko strategiaren gakoak.

Erasoaldien aurkako murrutik eztabaida eta hausnarketara igaro bezala, teoriatik praktikara jauzi egitekotan da orain Euskal Herriko mugimendu sozio-sindikala. Jauzi horretan, baina, irmo eutsiko diote Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunari.



## MANU AGIRRE ESKISABEL

**«Ezberdinak gara, baina berdinak izan behar dugu eskubide eta gizarte ondasunetan»**

Manu Agirre Eskisabel itsua da eta gertutik ezagutzen du ezgaitasunen bat duten pertsonen eguneroko bizitza. Herritar orok eskubide berdinak eduki beharko lituzkeela aldarrikatzen ez du atsedetik hartzen, eta horretan tematu da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna osatzeko prozesuan bertan ere. Aniztasun funtzionalaren gainean

eskarmentua duten herritarren artean mintegi berezitua egin zuten eta bertan hartu zuen parte Agirrek. Hego Euskal Herriko 31 lagun elkartu ziren Bilbon, ezgaitasunen bat duten lagunak edo horren gainean aritzen diren elkarteetako kideak denak. Euren sektorea erabat antolatua ez dagoen arren, «anitza» dela dio, eta antolakunde desberdinak

badaudela ekarri du gogora; aldarrikatzaileak batzuk, eta, bestak, zerbitzu emaileak.

Gutunak euskal herritarren gizarte eskubideen «konstituzioa» izan behar badu, Agirrek argi du denek hartu beharko luketela parte, «bakoitzak bizi duen egoeratik eta duen eskarmentutik, bestela besteek egiten dutenaren hartzaile izango gara», dio argi.

Gutunean jasotzen diren eskubideek ezgaitasunen bat duten pertsonen nola eragiten dieten aztertu zuten Bilboko bilkuran, bai eta zein arazo gehigarri dituzten zerrendatu ere.

Agirrek argi du ezberdintasunak egon badirela, baina «berezko ezberdintasun horiek ezin ditu ezberdintasun material edo politikoak zurrutu». Hala defendatu du bilbotarrak; «ezberdinak gara, baina berdinak izan behar dugu eskubide eta gizarte ondasunetan».

Gizartean, baina, desberdintasun «bidegabe handiak» ematen direla salatu du: «Plusbalioa elitearentzako da, guztiaren hondarra, minusbalioa, minusbaliantzat», salatu du.

Gizartearen dinamika arruntan, ezgaitasunen bat sufritzen dutenak bazterkeriaren mapan daudela esan eta hainbat adibide ipini ditu. Lan mundutik kanpo geratzen den gizarte sektore handiena direla gogora ekarri du, eta, laneratzea ematen bada, zentro berezietan ematen dela nabarmendu du; «bazterkeriatik merkatura bitarteko bidea egiteko zentroak izan beharko lirateke, baina ez dira», salatu du ozen.

Eskubideak unibertsalak izan beharko liratekeela nabarmendu ostean, hala ez badira batzuen «pribilegio» bihurtzen direla kritikatu du Agirrek. Horren guztiaren ardura, gainera, herri administrazioena dela nabarmendu du ONCEko langile ohiak.



# HERRI OLINPIADAK

## Bestelako aisialdi ereduak begian hartuta herriak biziberritzen dituzten ekimenak

📁 GIZARTEA / amalur.artola@gaur8.info

**H**iru hamarkada atzera eginda egiten dugu topo lehendabiziko Herri Olinpiadekin.

Eraldaketa sasoia zen 80ko hamarkada. Ordura arte ikusi eta bizitakotik harago bestelako eredurik egon zitekeela sinesten hasia zen gizarte, oinarriztat bestelako balio eta indargune batzuk hartzen hasteko abagunea zabaldu zela. Gazteek ere mobilizatu, eztabaidatu eta euren beharrei erantzuna emango zien errealitatea eraikitzen hasteko unea zela deliberatu zuten, eta hortik sortu ziren gaur egunera arte iraun duten hainbat gizarte mugimendu, nazio mailako eragina izan dutenak horietatik asko. Baina baita ekimen xumeagoak ere, herri mailan eragin eta eraldaketa txiki bezain garrantzitsuak ekarri dituztenak. Horietako bat dira Herri Olinpiadak.

«Egin ditugun elkarrizketetik dakigu garaiko testuingurua berezia zela. Batetik, giro politikoa gori-gorian zegoen. Bestetik, kuadrillak euren munduan egon ohi ziren, bakoitzak taberna batean, eta nesken eta mutilen arteko bereizketa ere nabaria zen. Euren artean harreman gutxi izateaz gainera, hartu-eman horiek ez ziren euskaraz ematen. Eta drogaren arazoa ere hor zegoen: heroinaren kontsumoa nahiko zabaldua zegoen herrian eta, hori guztiagatik, gazteek bestelako aisialdi eredu baten beharra ikusten zuten. Drogaren kasuan, Olinpiadek irauten zuten artean kontsumoa ekidin edo, gutxienez, gutxituko zela aurreikusten zen», azaldu dute Axok eta Maitanek, egungo Hernaniko Olinpiaden koordinazio taldeko kideetariko bik. Herriko gazteek lau urte daramatzate ekimena berreskuratu eta bestelako aisialdi ereduaren aldeko lanean eta oraintxe ari dira ospatzen 2014. urteko edizioa (<http://hernanikogazteasanblada.com/olinpiadak>).

Hernanin, 1988an egin ziren lehen Olinpiadak. Herriko gazteak harremantzea, euskararen erabilera sustatzea eta horren

Olinpiadek 80ko hamarkadaren amaiera aldera izan zuten sortzea eta haietan parte hartu zutenek gogoan dute oraindik ere herriak biziberritze aldera izan zuten indarra. Egun, zenbait herritan ekimen horiek berreskuratzeko lanetan ari dira. Hernaniko gazteek 2010ean piztu zuten sua; Hondarribian, aurten egin dute lehen edizioa.

beharrezkotzat jotzen zen bestelako aisialdi eredu hori eskaintzea hartu zuen helburutzat lehen lantalde hark eta, hala, bederatzi hilabeteko programazio mardula osatu zuten, batez ere kirol probez osatua (errugbia, futbola, saskibaloia, ping-ponga, eskalada...). «Proba asko izaten ziren eta, inplikazioa lortzeko, talde bakoitzak horietako bat antolatzeke ardura hartzen

zuen. Ekimenak hasieratik izan zuten arrakasta eta segituan hartu zuen izaera herrikoa: taldeak kuadrillak antolatzen baziren ere, herriko eragile ezberdinak ere parte hartzen hasi ziren eta, hala, AEK-ko taldea edo udaltzainena sortu ziren», kontatu du Maitanek. «Ideia oso politak izan zituzten. Bazegoen atrezzoak oso ondo egiten zituen talde bat eta edizio batean kanpale-

kua osatu zuten, tipiekin eta abar. Han egon ziren astebetez kanpatuta, eta talde bat kolonizatzailez mozorrotu eta kanpatuta zeudenak handik botatzen ahalegindu zen... Sekulako pikeak egoten ziren. Nolabait, lortu zuten bestelako eredu eta giro hori sortzea», azaldu du Axokek.

Lehen Olinpiada haiek «guzak nola antolatzen ziren ikasketeko» baliagarriak eta arrakastatsuak izan ziren, baina bi edizioen ostean etorri zen lehen etenaldia. «Ez da erraza bederatzi hilabeteko egitaraua osatzea. Olinpiadak abiatzeko lantaldea osatzen da eta amaitzean lantaldea desegin egiten da. Hasi eta bukatzen den zerbait da eta hurrengoari arra pizten zaion arte ez da berriro hasten», azaldu du Maitanek.

Eta arra beste belaunaldi bati sortu zitzaion, 1998an, hamarkada bat geroago eta giro sozial oso ezberdinean: «Euskara gehiago erabiltzen zen eta baze-

Hernanin 2010ean ekin zioten Olinpiadak berreskuratzeari. Aurten, ekainaren 21ean amaituko dira, Altxorraren Bila jolasarekin eta herri bazkariarekin.  
GAUR8



## Hernaniko Olinpiadek hasieratik izan zuten herri izaera eta zenbait elkartek ere hartzen zuten parte. Besteren artean, AEK-ko taldea eta udaltzainena izaten ziren

goen nolabaiteko antolaketa bat, gazte asanblada, aisialdi taldeak... Gazte mugimendua indartsuago zegoen», aipatu du Maitanek. Belaunaldi berriak bere egin zituen Olinpiadak eta, hala, balore berriak gehitzen joan ziren. Taldeek, esaterako, mistoak izan behar zuten, eta probetan ere ez zen emakume eta gizonezkoen artean bereizketarik egiten. «Aurretik, errugbian adibidez, bereizita aritzen ziren neskak eta mutilak, baina 1998an ez zen halako bereizketarik egin», kontatu du Axokek. Era berean, ohiko kiroltatik urruntzen ziren probak ere antolatu zituzten, baina belaunaldi berriko Olinpiadak ere bigarren edizioan amaitu ziren: «Sarekada handi bat izan zen 2000n eta Olinpiadak bertan behera uztea erabaki zen».

### LEHIAKORTASUNAREN ERRONKA

Egungo Olinpiadak 2010. urtean abiatu zituzten. «Espero ez genuen zerbait izan zen. Gazte asanblada nahiko txukun zebilen, gaztetxea okupatu berritan geunden eta 98an aritutakoak etorri zitzaizkigun, Olinpiadak berreskuratzeko proposamenarekin», kontatu du Maitanek. Informazioa eta materiala (bideoak, argazkiak...) biltzen ari zirela ohartu ziren eskuartearen zuten proposamena «oso handia» zela, eta, nola antolatu ikusteko, udaberrian mini-olinpiada batzuk egitea erabaki zuten.

Sorpresa mini-olinpiadak antolatzeko lehen bileran jaso zuten: «Espektatibak handiak izango zirela eta zerbait xumea egiteko asmoa genuen, baina lehen asanblada deitu genuenean ehundik gora pertsona azaldu ziren. Hortxe erabaki genuen ezin zutela 'mini' izan», azaldu du Axokek. Jaso zuten erantzunaren tamainako Olinpiadak antolatzea izan zuten erronka, eta baita egin ere. Hirugarren belaunaldiko lehen Olinpiada haietan 30 taldek hartu zuten parte, lauhun pertsonatik gora guztira, eta 80ko zein 90eko hamarkadetako zenbait talde ere aritu ziren. Adin tartea 16 eta 50 urte bitartekoa izan zen. «Erantzuna izugarria izan zen.

## Olinpiadak 2010ean berreskuratu zituzten: «Lehen egunetik mugitu zen herria, laguntza eskainiz, parte hartuz... Denon artean zerbait handia egin genuela pentsatu nuen»



Herri Olinpiadek kirola, umorea eta artea uztartzen dituzte. Goitik behera, sokatira saioa, goitibehera proba eta Hondarribiko parodia arrakastatsua. GAUR8

Bagenekien Olinpiadak zerbait handia zirela, baina ordura arte ez genituen bizi. Jendearen inplikazioa, antolaketan laguntzeko prestutasuna, zuzenean parte hartu ez arren proba bakoitzaren bueltan biltzen den jendetza... Herri guztira hedatzen da Olinpiada». Maitanek, esaterako, 2010eko Olinpiadetako lehen eguna ez zaiola sekula ahaztuko dio: «Apirilaren 21a zen. Ez nuen Hernanin sekula halako ezer ikusi. Ez nuen uste guk halako zerbait antolatzeko gaitasunik izan genezakeenik eta baietz ikusi genuen, baina hori baino gehiago izan zen. Herria bera nola antolatu zen, nola mugitu zen, zenbat kolore, laguntzeko zenbat esku, zenbat jende bildu zen ekimen bakoitzaren bueltan... Lehenengo egun hori oso grabatua daukat. 'Zer egin dugu denon artean?' pentsatu nuen. Egundia izan zen».

Hala ere, garai berriek erronka berriak dakartzate. Eta egungoak ere baditu bereak: lehiakortasuna eta lokalak. Lehen kuadrillak "hermetikoak" baziren, orain «paretak jarri dituzte euren artean», ziurtatu dute: «Kuadrillak eremu pribatuetan biltzeak are gehiago zailtzen ditu harremanak». Lehiakortasunak ere eman omen ditu bereak: «Zapiaren jolasa bezalako gauza simple batean ikusi genituen tamainako jarrera oldarkorrek egotea izugarria da», dio Axokek, eta 2010ean sailkapenari su ematea erabaki zutela azaldu du. Egundia, jolas kooperatiboen aldeko hautua egiten dutela dio, eta beste era bateko probak antolatzen dituztela: «Patin lasterketa gisako klasikoak mantentzen ditugu, baina boxeoa, 'humor amarillo', errelebo lasterketak... taldea aintzat hartzen duten probak dira, eta, era berean, antolakuntzatik jarrerak saritu eta zigortu ere egiten ditugu», amaitu du.

### HONDARRIBIAN HERRI GIROA ARNAS

Hondarribian ere Olinpiadak ([www.facebook.com/hondarribiko.olinpiadak](http://www.facebook.com/hondarribiko.olinpiadak)) berreskuratzeko bidean dabilta eta aurten ospatu dute belaunaldi berriko lehen edizioa. Larrun eta Haitz dira



antolaketan parte hartu duten gazteetarik bi, eta, haien hitzetan, «aurreikuspen guztiak gaituta» eta «herriko giroa goitik behera aldatuta» eman diote amaiera ekimenari.

Hernanin bezala, Hondarribian ere 80ko hamarkadako azken urteetan ospatu ziren lehen-dabiziko Olinpiadak eta 1996. urtera arte iraun zuten. «Herriko gazte bat Andoain inguruan ibiltzen zen eta handik ekarri zuen ideia. Orduan Hondarribian bagenuen gaztetxea, eta handik antolatu ziren lehen-dabizikoak. Lehen deialdian 18 taldek hartu zuten parte eta, arrakasta ikusita, urtero egitea erabaki zuten. Handik lau urtera, 44 talde izatera iritsi ziren», kontatu dute.

Turismoari estuki lotutako herria da Hondarribia eta, hala, neguan antolatzen zituzten Olinpiadak, baina arrakasta gehien zuen ekitaldia inauterietan batera iristen zen: parodia musikala. «Taldea bakoitzak abesti bat edo abesti sorta bat aukeratu eta parodia edo antzerkia egin behar izaten zuten. Batzuek asko lantzen zuten, ur-



## OLINPIADEN HISTORIA BILTZEKO BIDEO LANAK ABIAN

Bai Hernanin eta baita Hondarribian ere, bietan ari dira euren herriko Olinpiaden historia biltzen duten bideo lanak prestatzen. Hernaniko kasuan, ekimenak irauten duen artean ikus-entzunezko Olinpik News saioa egiten du horretarako berariaz sortutako lantaldeak eta Hamaika Telebistan (ostiral iluntzeetan) zein Youtubean zintzilikatzen dute, denen eskura egon dadin. Horrez gainera, 80ko hamarkadan Olinpiadak sortu ziren garaiko argazki eta bideoak eskuratzeko lanetan ari dira, gerora horrekin «zerbait mardulagoa» egin ahal izateko. «Ez da dokumental formal bat izango. Garai ezberdinetan parte hartu izan dutenen testigantzak bildu eta argazkiekin osatuta muntaiatxo bat egitea da asmoa», azaldu dute.

Hondarribian ere antzeko lanketa egiten ari dira. Dokumentazio lana egin dute dagoeneko eta momentuz zortzi elkarriketa egin dituzte: «Garai ezberdinetan partu hartu eta zeregin ezberdinetan aritu direnekin egin ditugu grabazioak. Batez ere Olinpiadak ze testuingurutan sortu ziren, nola antolatzen zituzten, herrian zer suposatu zuten eta kanpotik ikusten zituenak ere nola bizitzen zituen bildu nahi dugu. Edizio berriak antolatzeko orduan, baliagarria izango zaigula uste dugu», azaldu dute.

tea, jendea elkartzea, harreman-  
tzea, ezagutzea».

Alde horretatik, herrian aldaketa handia eman dela ziurtatu dute bi gazteek eta hori lehen probaren ostean sumatu zutela azaldu dute. «Larunbat goiz batean egin genuen lehena, herri kirolen proba, eta, espontaneoki, bazkalostean triki-poteoa antolatu genuen. Adostutako lekura iritsi ginenean ehun pertsonatik gora zeudela ikusi genuen, jendea umore onez eta elkar ezagutzeko gogoz sumatu genuen; tabernak ere jokoan sartu ziren, garagardo botilak euro batean aterata... Haiek ere sumatzen dute herria biziberritzeko beharra, kaleak husten joan zaizkigulako», azaldu du Larrunek.

Aurtengo edizioan 17 eta 35 urte bitarteko 200 pertsonak hartu dute parte, 19 talde guztira. Bi hilabete iraun dute Olinpiadek eta maiatza hasieran eman zieten amaiera, su olinpikoaren itzalaldiarekin. «Baina badakigu ez dela hor bukatzen. Sortu dena ikusi ostean, jendea animatu eta dagoeneko galdetzen ari da, ea noiz egin behar dugun hurrengoa. Hasieran proba gisa planteatu genuen aurtengoa, eta, ikusitakoa ikusita, ziur gaude aurrera jarraituko dugula», azaldu du Haitzek.

Olinpiaden haritik herriko gazteek elkar ezagutu dutela eta harreman horien ondotik ekimen berriak sortuko direla ere aurreikusten dute. Esaterako, dagoeneko zine forum bat antolatzen ari dira. «Nik, pertsonalki, inflexio puntu bat eman dela uste dut. Denbora gutxian asko aldatu da herriko bizitza. Agian egia da orain euforia une batean gaude la, baina honek bere fruituak emango dituela sinesten dut. Hurrengo urterako ideia politikak badaude jada, jendea motibatua dago eta Olinpiadek jarraipena izango dutela bederen ziur gaude», dio Larrunek.

Euforiaren ondorio izan edo ez, argi dago Olinpiadek antolaketan trebatu, gazteen zein belaunaldi ezberdinetako pertsonen arteko harremanak estutu eta herriak biziberritzeko indarra badutela erakutsi dutela. Erronka, orain, sentipen hori elikatu eta mantentzean dago.

te osoa ematen zuten entseazten; beste batzuek, aldiz, ez horrenbeste... oso dibertigarria izaten zen. Seihun partaide baino gehiago elkartzen ziren. Kostaldeko frontoian bi mila eserleku jartzen zituzten eta guztiak betetzen ziren, harmailak ere lepo egon ohi ziren!».

Ia astebururo izaten zen probaren bat, asko kirolarekin lotutakoak, eta beste asko sormenaren arlokoak. «Hondarrezko irudiak sortzearena, adibidez. Proba bitxiak ere bazeuden, mendi garbiketa kasu: zabor gehien biltzen zuen irabazten zuen. Normalean urtez urte aldatuz joaten ziren, baina bazeuden urtero errepikatzen zirenak ere, parodiarena esaterako».

Hernanin bezala, Hondarribian ere herriko kuadrillen arteko lotura indartzeko beharra izan zen Olinpiadak abian jartzeko arrazoietako bat eta, egun ere, hori izan da belaunaldi berriak sentitzen duen beharra. «Gutari-ko asko haurrak ginen 1996ko azken Olinpiada haietan eta gurasoei entzunda-eta bagenekien jarduera arrakastatsua zela, baina zer zen oso garbi jakin gabe.

Gazte asanbladan bota zuten berreskuratzearen ideia eta gero handik herriko gazte guztiengana hedatu da. Nolabait, jendeak ikusten zuen Hondarribiak zer-bait behar duela, herri honetan aspaldi ez dagoelako herri girorik», uste du Larrunek. Iritzi berekoa da Haitz: «Hondarribia asko aldatzen da udan eta neguan. Udan, kanpotarrak dabilta no-nahi eta noiznahi. Neguan, kaleak hutsik egoten dira. Ez dago poteo girorik, kalera irten eta beste kuadrilla batzuekin elkartzeko aukerarik. Gazteak lokale-tan ixten dira, herriko punta ezberdinetan, eta helburua zen jende masa hori kalera erama-

Hondarribian 80ko hamarkadako amaiera aldera sortu eta 1996ra arte iraun zuten Olinpiadek. Irudian, aurten ere egin duten hondarrezko irudien txapelketako garai hartako argazkia.  
GAUR8

**Turismoari eskua emanda bizi den herria da Hondarribia eta bertan beti neguan egin izan dituzte Olinpiadak. Hala egin zuten 80ko hamarkada amaieratik 1996ra bitartean ere**

**Aurten berreskuratu dituzte eta, antolatzaileen hitzetan, herriko giroa goitik behera aldatu da: «Gazteak lokale-tan ixtetik kalera ateratzera pasa gara, eta horrek emango ditu fruituak»**



**Nagore Amondarain**  
Hezkuntza teknikaria

## Riverside

**H**iri baten loraldia edo loraldia bertako komertzio txiki zein tabernek markatzen dute. Urritasunean baino, hauen hazkuntzean eta aniztasunean dago hiri edo auzo baten bizitza. Tabernen kasuan, esango nuke, hauek ematen dietela aterpe astean zeharreko edo egunerokotasuneko artega eta erritmo biziari. Bertan hartzen baitugu sarritan deskantsua, garagardo, ardo, zuku edo pintxo zein bokata bat lagun.

Aurreko astean irakurri nion Imanol Epelde zarauztarrari “Donostiatik bueltatu berri. Ederrak dira oso Rekaldeko bokatak”, eta pentsatu nuen makrobiotiko batentzat agian ez direla onenak baina Imanolek beste zerbait dastatu zuela Rekalde tabernan, hori zela mezuaren sakoneko bizipena. Egon badaude generazio berriko bokatak hor zehar, ogi motak aukerak jartzen dituztenak, tofu, seitan zein mila saltsa aukeran jartzekoak. Baina Donostiako Aldamar kaleko Rekalde tabernak beste saltsa bat du. Taberna bete poz izaten du normalean, barraren alde bietan. Taberna moduan 1955etik omen dago zabalik, Donostiako taberna zaharrenen zerrendan legoke, beraz.

**Elkarte gastronomikoen erritualekin apurtzen dute tabernek, sozietate endogamikoaren alternatiba dira, alegia. Eta askok kritikatu omen naute esango dudanagatik, baina gazteen lokalen pareko ari zaizkit bihurtzen elkarte gastronomikoak, zer nahi duzue esatea.** Noizbehinka hitzordu masiboetarako oso egokiak dira lokal edo sozietate hauek. Guraso berrien lokal ere hasi dira bihurtzen, eta horrela izango da agian, umeak lasai ederrean egoteko toki bat, eremu zurrar nonbait. Baina norbere kuadrilla edo zirkulutik harago, eremu ez-zurrar beraz, beti dago jende desberdina agurtzeko aukera taberna batean, batarekin eta bestearekin berba egiteko; auzoan gertatu denari buruz berba egingo dizu batek edo tabernariak asteburuan burutuko den ekimen ba-

ten berri eman diezazuke. Donostiako Rekaldera ere hego haizearekin batera hasi dira iristen kolore anitzetako trobadore, bidaiari eta hego haizeak jotako asko, eta denei ematen zaie aterpe. Denok ez bagara behintzat hego haizeak jotako arima errariak.

**Ostalaritzako low costaren alternatiba ere izan daiteke ostegunetan, Groseko pintxo pote fenomeno deskribaezinaren alternatiba. Tabernarien kolorerik gustukoenerkin urtero margotzen duten arren taberna, berdin dio pintura eskuak, arin batean betetzen baitira hormak ekitaldien afixekin; asteburuko ekintza kultural edo aldarrikatzaileen agenda dirudi batzuetan.** Erreferentziazko gune bat da bertakoentzat zein bisitariarentzat, ez dago dudarik. Eta hori ez

du garagardozaileen ekosistemak soilik egiten, tabernarien dohaina da arreta, zaintza eta giro ona. Beraiek jartzen dute ekimen askotarako hazia, dela ekainaren 8ko giza katerako berrogeita hamar kideko zerrenda, zein Donostiako Piraten abordatzean ateratzen den Aldamaran ontzia, Irrikitaldirako estandarte propioak... Finean ekosistema txiki bat harilkatzen dute, lemazain on batekin.

Lemazain hori gai izango da biharoko egunez, bezeroak bertso bazkari baten bueltan biltzeko. Biharko egunez, taberna itxita eta tabernarien jai eguna izanda ere, BEC txiki bat antolatuko dute; taula gainean kantatu zuten bi bertsolari Riversideko ekosistema zirikatzen izango ditugu. Beste horrenbeste urte opa dizkiot Riversideko aterpeari! •



Rekalde taberna Donostiako zaharrenen zerrendan dago. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



{ koaderno } **Mikel Soto**

# Hegemonia

**M**oratoria bat eskatzera nator. Mesedez, utz diezaiogun, bolada batez bederen, “hegemonia” hitza erabiltzeari. Ez daukat argi noiz hasi zen, ez dakit nik horretan lagundu nuen ere; dakidan bakarra da ezin dudala egun bat pasa hitza pare bat aldiz entzun edo irakurri gabe. Egunkari honetako orrialdeetan edozein artikulu irakurri, eta ditzosozko hitza dator; bilera batera joan eta han dago; Sarean ezkerrekoa den edozer irakurri eta berriz azaltzen da, erabili ohi duen edozein mozorroren pean: “hegemoniko”, “kontrahegemoniko”... Edo are borrokalariago, aditz bihurtu nahian: “hegemonia sortu”, “hegemonia eraiki”...

Zenbat alditan erabiltzen ditugun hitzak ezer ez esateko edo esan nahi dugun hori beste kategoria batera igotzen saiatzeko. Horretan euskaldunok trebe gara: zenbatetan ez da euskaldun peto-peto bat irrigarri agertzen gaztelera jaso bat erabili nahian.

«*Desearía solicitarle se sirviera a introducirme el dinero en la cuenta de ahorro dispuesta a tal efecto...*» esanez, «*ingréseme el dinero en mi cuenta*» esan beharrean. Eta, ezkerreko euskaldunok, osmosiagatik edo, antzeko zerbait garatu dugu diskurtso politikoetan. Hitz bat edo kontzeptu bat hartzen dugu eta erabiltzearen erabiltzeaz esanahia ahitzen diogu. Jakingo dute zertaz ari naizen 1990eko bigarren erdian ezker abertzalean militatzen ari zirenek “txinaurri lana” aipatzen badut. Hainbat urtez, ezker abertzaleak egin zuen orok izan behar zuen txinaurri lana, hori zen garaipenera eramango gintuen ukendu magikoa. Orain botere hegemonikoa borrokatzen badugu eta, aldi berean, botere kontrahegemonikoa eraiki, gurea da garaipena. Antza, ezkerreko abertzaleak harri berean bitan, hirutan edo behar den guztietan behatzen garen animaliak gara (ez bakarrak, zorionez).

Iruditzen zait “The Princess Bride” filmeko Vizzini pertsonaiari gertatzen zaiona gertatzen zaiola hainbati. “*Inconceivable*” hitza haserre oihukatzen du etengabe, Iñigo Montoyak (bai, “*Soy Iñigo Montoya, tú mataste a mi padre, prepárate a morir*”) zuzentzen dion arte: «*Siempre usas esa palabra y no creo que signifique lo que tú crees*». Azterketaxo maltzurra egin eta “hegemonia” hitza definitzeko eskatuko bagenu, telefono apurtuaren jolasaren moduko eran-

tzunak jasoko genituzke. Diskurtso politikoa jasotzeko hainbat amarru egiten ditugu, segur asko gure diskurtso politikoa inoiz baino pobregoa denean (lehen excursoa: badakit faktore ugariengatik gertatzen dela eta besterik gabe botatzea *reductio ad absurdum* bat dirudiela, baina gogoan dut mitinetan edo manifa nazionaletan zentzu liturgikorik gabe diskurtso bat entzutera geratzen ginenean, “esateko geneukana” entzun nahi genuelako). Hitz jasoak erabiltzen ditugu, sinpleak erabili beharrean; kontzeptuak, gertakari historikoak, esaldiak inguruabar historikotik ateratzen ditugu lotsa gabe; esateko duguna beste norbaiten ahotan jarri badezakegu, bikoitza balio duela uste dugu... (bigarren excursoa: aipuen erabilera gehiegizkoak barregarriak direla pentsatzen hasia nago. Eta ez naiz ni aipu gutxi egitekoa, argi gera bedi, baina martxa honetan egunen batean «Leninek esan bezala, ‘ateraidazu garagardo bat’» irakurriko dugu eta lasai jarraituko dugu aurrera).

Arren, jar dezagun martxan moratoria hori, argitu dezagun zer esan nahi dugun eta esan dezagun adimen ertaineko pertsona batek ulertzeko moduan

Honek guztiak guk soilik ulertzen dugun jerga sektario batean idaztera, hitz egitera, pentsatzera eta, okerrago dena, jardutera garamatzala uste dut. Chomskyri, behin, egile bati buruz hitz egiten entzun nion eta –oso gutxi gorabehera– horrelako zerbait zioen (bai, esanak esan, aipu bat eta buruz; «*¡qué huevos tienes, compañero!*»): «Ez dut uste gizarte zientziak azken 200 urteetan hainbeste garatu direnik, non adimen ertaineko pertsona batek ezin duen zerbait ulertu. Beraz, politikan ulertezina den zerbait irakurtzen dudanean, ergelkeriak direla pentsatzeko joera dut». Iritzi berekoa naiz. Bada, arren, jar dezagun martxan moratoria hori, argitu dezagun zer esan nahi dugun eta esan dezagun adimen ertaineko pertsona batek ulertzeko moduan. Bestela, Gramscik aspaldi esan zuena esaten amaituko dugu: «Ez zaitezte komunean sartu rato batean, tripak nahastuak neuzkan». •

# «Euskal estatuaren aldeko subjektu berria eraiki beharko dugu, abertzaletasunetik harago»

**E**rabakitzeko eskubidea eztabaida politikoaren erdi-erdian dago; Eskozian eta Katalunian erreferendum bana daude deituta eta Euskal Herrian arnasten den giroak badu berritik. 2014. urtea garrantzitsua izango den seinaleak egon badaude. Txutxi Ariznabarretak, Independentistak sareko kideak, nahia go du ez aipatu «une historikorik». Bere esanetan, «prozesu historiko bat martxan jartzeko aukera baten aurrean gaude». Edonola ere, lanerako ordua.

**2014. urtea etorkizunaren urtea dela esaten da Eskoziarentzat eta Kataluniarentzat. Euskal Herriarentzat ere urte garrantzitsua da, ezta?**

Bai. Denbora gutxian aldaketa handiak eman dira Euskal Herrian eta euskal herritarren buruetan. "Independentzia" eta "euskal estatuaren sorrera" bezalako kontzeptuak normaltasunez erabiltzen ditugu orain. Baina duela urte gutxi, bizpahiru urte, edozein eztabaida eta tertuliatan norbaitek "euskal estatuaren sorrera" botatzen bazuen, oso utopikotzat hartzen zen. Independentzia beti esparru oso utopiko eta abstraktuan kokatzen zen. Eta duela gutxi ezinezkotzat jotzen zena, gaur egun posibletzat jotzen da. Horretan asko lagundu dute Eskoziako eta Kataluniako egoerek. 2014. urtea garrantzitsua da horregatik, bi erreferendum daukelako data eta guzti. Beste gauza bat izango da emaitza, baina erreferendumak hor daude.

**Eskoziara pausu bat aurrerago doa.**

Eskoziako kasuan Erresuma Batuak joko demokratikoa onartu du, ez bakarrik erreferenduma antolatzeko, baita eskumenak eskoziarren esku uzteko ere. Horrez gain, akordioa lortu dute, eta, baietzak irabaziko balu, Erresuma Batuak trantsizio prozesuan lagundu egingo luke, estatua berria eraikitzen lagundu-

ko luke. Garrantzitsuena da Eskoziak eta Kataluniak aurtengo urtea markatu egin dutela, eta eztabaida politikoaren erdi-erdian kokatu dutela eztabaidatzeko eskubidea; hori da gakoa. Era berean independentziaren aukera mahai gainean dago benetako alternatiba politiko modura.

**Eskoziak Erresuma Batua dauka parean; Euskal Herriak Estatu espainola eta Estatu frantsesa. Batzuen eta besteen jarrerak oso urrun daude.**

Bai, eta hori frustragarria da askotan. Baina, era berean, jarrera itxi horrek piztu egiten du erabakitzeko eskubidearen aldekoak. Independentziaren aldeko indar askoz gehiago metatuko litirateke jendeak ikusiko balu ibilbide hori inongo konbultsio gabe, konfrontazio gabe, joko demokratiko garbi baten bitartez egin daitekeela. Baina denok susmatzen dugu hori ezinezkoa dela eta konfrontazioa eta tentsioa egongo dela. Horrek ez du esan nahi, Estatu espainoletik esaten den moduan, sezesio prozesuek derrigorrez eraman behar dutenik gatazka bortitzetara. Gauza bat gatazka bortitza da eta bestea pulsu politikoa. Eta bai, pulsu politikoa egongo da.

**Nola eman dakioke buelta itxitasun horrek sortzen duen frustrazioari?**

Jarrera itxi horrek baditu elementu baikorrak eta okerrak. Adibidez, Kataluniari begiratzen badiogu, agian hain indartsu sartu da independentziaren aldeko apustura beste bide guztiak itxi egin dizkiotelako. Estatu espainolak egingo balu joko politiko inteligente bat, agian lortuko luke independentziaren alde ez metatzea gehiengorik. Baina horretarako mahai gainean jarri beharko lituzke alternatibak, herritarren itxaropenak, nahiak eta beharrak maila batean asetzeko modukoak. Baina bere itxikeria horren ondorioz, identitate nazionala bera ukatuz eta inolako erabakitzeko aukerarik utzi gabe,

kalezulo bakarra uzten die herritarrei, sezesioarena.

**Erresuma Batuaren kasuan jarrera desberdina izan da. Baina 300 urtean bare egondako urak harrotu egin dira, eta independentziaren aldeko olatua altxatu egin da.**

300 urteko batasunaren ondoren, XX. mendearen bigarren partean prozesu bat jartzen da martxan eta hor hasten da sortzen eskoziar independentismo berria. Klabe ekonomikoak daude tartean. Batetik, Bigarren Mundu Gerra bitarte britanismoa izan zen munduko jaun eta jabe, baina hortik aurrera Ameriketako Estatu Batuak hasten dira munduan agintzen eta britanismoa bigarren tokian geratu zen. Pisua eta prestigioa galdu zuen, eta eskoziarrek nabaritu zuten parte diren Erresuma Batuak indarra galdu zuela munduan. 70eko hamarkadan petrolio agertu zen Ipar itsasorain. Parte handiena Eskoziako uretan zegoen eta orduan eskoziarrak konturatzen hasi ziren dagoeneko ez zirela pobreak. 70eko eta 80ko hamarkadetan petrolio ustiatzen hasi ziren eta eskoziarrak konturatu ziren beren petrolioaren dirua Londresek kudeatzen zuela. Eta, orduan, galdera etorri zen: «Nola kudeatzen du?». Eskoziarrek garbi zuten beren petrolioaren diruak beren onurarako izan behar zuela, eskoziarrek kudeatu behar zutela. Eta hor hasi zen pizten prozesu sezesionista.

Pentsa, 1967an nazionalista eskoziarrek lehen diputatua lortu zuten Londresen, emakume bat. Ezustea izan zen hori. Hamar urteren buruan, ezustea handiagoa izan zen, 11 diputatu lortu baitzituzten. Horren atzean zegoen petrolioaren diruaren kudeaketa. Thatcherismoa etorri zen gero, politika sozial eta ekonomiko oso gogorrek ekarri zituen eta Eskoziara laborategi modura erabili zuena. Hor hasi ziren konturatzen eskoziarrak ekonomikoki itota zeuden bitartean Thatcherren arrakasta eko-


## TXUTXI

### ARIZNABARRETA

#### INDEPENDENTISTAK SAREA

2014. urtea etorkizuneko urtea omen da Eskoziarentzat eta Kataluniarentzat. Euskal Herriak adi begiratzen du batera eta bestera, zer ikusiko eta zer ikasiko.

amagoia.mujika@gaur8.info



nomikoaren atzean beren petrolioaren ustiaketa zegoela. Alegia, petrolio epe laburreko eta interes propioko helburuetarako erabiltzen zuen Londresek, eta ez epe luzeko estrategia baterako. Bitartean, eskoziarrek Norvegiak petrolioarekin zer egiten zuen ikusten zuten: «Naturak emandako aberastasun bat da eta ezin du izan bakarrik gaur egungo belaunaldientzat. Etorkizuneko belaunaldiek petrolioaren onurak jaso behar dituzte». Hartara, etorkizuneko planteamendua egin eta funts bat sortu zuten Norvegian, gaur egun munduko funts liberrik garrantzitsuenetakoa dena. Horrek guztiak izugarritzko iraultza mentala sortu zuen eskoziarren artean.

### **Eta independentziaren aldeko aukera indarrak batzen hasten da.**

Bai. Gainera, batasun urte luzeetan dirua egiten du Eskoziako oligarkiak. Eta elkarlana sortzen da Londresko eta Eskoziako oligarkien artean. Oligarkia hori oso aberatsa da, baina, aldi berean, bi milioi eskoziarrek kanpora joan beharra daukate bizimodua aurrera ateratzeko. Alegia, batasun hori ekonomikoki onuragarria da gutxi batzuentzat. Thatcherren garaian britanismoa AEBen mendera erortzen da eta globalizazio ekonomikoarekin oligarkia desgastatzen joaten da, eta baita eskuineko botoak ere. Ez dago Eskoziako eskuineko diputaturik Londresen, baina gero Londresen eskuinak agintzen du eta horrek kontraesanak sortzen ditu eskoziarren artean.

Egoera horretan Eskoziako boto unionista mugitzen joaten da boto laborista eskoziarrera, eta pixkanaka boto independentista bihurtzen da. SNP alderdiak jakin du, gainera, amalgama hori guztia biltzen.

### **Eskoziaren bidean gertaera sozioekonomikoek pisu handia izan dute. Euskal Herriaren kasuan desberdina da, ezta?**

Gure kasuan nazioa ukatuta dago, eta, horren ondorioz, baita herritarren identitate nazionala ere. Ondorioz, ahalegin handia



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

## **IBILBIDEA**

Informazio Zientzietan lizentziatua eta Enpresa Ekonomian diplomatua da. Independentistak sareko sortzailea eta kidea da. Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiko zuzendaritza batzordeko kidea ere bada.

inbertitu behar dugu gure nazio identitatea aldarrikatzen. Eskoziaren identitate nazionala onartua izan da beti. Bere garaian batasuna egin zenean zehaztu zen bi erresumak koroa berdinarekin pean jartzen zirela, baina bi nazio ordezkatzeko dituzten bi erresuma zirela onartuz. Eta, gero, Galesekin, hiru. Hori errespetatzen da eta alde horretatik ez da sortzen arazo nazionalik. Munduaren aurrean eskoziarrek eskoziarrek dira.

Esaten dute edozein herri edo nazio ibilbide independentista bat egiterakoan bi elementu konpondu behar dituela aurretik: batetik, identitate nazionalaren kontua, eta, bestetik, elementu sozioekonomikoa. Alegia, proiektu independentista hori etorkizuneko proiektu sozial eta ekonomiko erakargarri batekin lotu beharra dagoela. Eskoziarrek lehen parte konpondua izan dute beti, eta horregatik jarri dute indarra independentismo ekonomiko eta soziala garatzen.

### **Euskal Herrian aldagai sozioekonomikoei pisu handiagoa eman beharko al litzaieke?**

Gauza asko dauzkagu ikasteko Eskoziako prozesutik. Batez ere, bide independentista bat mar txan jartzeko eta arrakasta izateko horren aldeotasun bat metatu beharra dagoela, subjektu berri bat eraiki behar dela. Eta gure kasuan ezinbestean eraiki beharko dugu euskal estatuaren aldeko subjektua, baina abertzaletasunetik harago. Orain arte hemen arazo nazionalak izan du pisua, etengabe gaude nazio eraikuntzan, nazioa eraiki, eraiki eta eraiki. Eta Estatu espainola eta Estatu frantsesa, beren aldeetik, eraikuntza horri eraso egiten; desprogramatzen eta desgastatzen etengabe. Nazio eraikuntza etengabe horri esker, Euskal Herria herri gisa eta nazio gisa kohesionatuta dago, eta estatu baten eraikuntzari ekiteko baldintzetan. Kontua da arazo nazional horri begira mahai gainean jartzen ditugun arazoak gehienetan abertzale-

entzat balio duten arazo partikularrak izaten direla. Eta gehiengoak metatu behar baditugu, mahai gainean arazoak unibertsalak jarri beharko ditugu, euskal herritar guztientzat unibertsalak diren arazoak. Elementu identitarioak, hizkuntzarenak, kulturalak, sentimentalak bai, baina, horiez gain, klabe sozioekonomikoak eta demokratikoak ere jarri behar dira mahai gainean. Demokrazia bat eskaini behar da. Batzuek demokrazia aipatzen dute zerbait absolutua balitz moduan; demokrazia bide bat da. Niri gehiago gustatzen zait demokratizazioaz hitz egitea.

Bestetik, Euskal Herria ematen den dibertsitatea errealitate bat da. European, Luxenburgorekin edota Kataluniarekin batera, Euskal Herria da bertan jaio gabeko biztanle ehuneko handienetarikoa duen lurraldea. Dibertsitate hori esparru desberdinetan ematen da; non-gotasuna, identitate nazionala, hizkuntza... Horregatik, estatu



baten proposamena egiten de-  
nean, dibertsitate hori oso kon-  
tuan hartu behar da.

**Independentziaren kontrako-  
ek darabilten argudioetako bat  
hori da: dibertsitate hori ez  
omen du bermatuko.**

Alor honetan, Estatu espainolak eta Estatu frantsesak tranpa egiten digute. Behin eta berriz esaten digute independentzia ez dela bidezkoa ez duelako dibertsitate hori errespetatzen. Horrekin esan nahi dute bi estatuak direla dibertsitate horren errespetua bermatzen dutenak, eta hori sekulako astakeria da. Juxtu Estatu espainolak eta Estatu frantsesak ez dute dibertsitatea defendatzen, uniformitatea inposatzen dute. Nola errespetatuko dute dibertsitatea horren baitan euskal identitate nazionala ez badute onartzen? Gainera, hizkuntza eta kultura mailan frantsesa eta espainola inposatzen dituzte, eta beste guztia mespretxatu egiten dute, eraso. Guk, XXI. mendeko independentismo batetik, dibertsitate hori errespetatzeko gaitasuna duen estatus politikoa bakarrik euskal estatu independentea dela esaten dugu, dibertsitate horretatik bertatik sortutakoa. Horrelako argudioei buelta eman behar diegu, oso modu faltsuan erabiltzen baitituzte estatuak. XXI. mendeko independentismo hori lantzen, sakontzen eta, maila batean, asmatzen bete-betean sartuak gaude.

**Eskoziara eta Kataluniara begira bai, baina bide propioa ibili beharko du Euskal Herriak.**

Eskoziarren kasuan, nahiko ge-  
nuke beren bidea egitea geuk ere. Baina hor dagoen arazoa da espainiar eta frantses estatuak ez dutela onartzen euskal herritarren erabakitze eskubidea. Gustatuko litzaiguke, baina denok susmatzen dugu bide hori ezinezkoa izango dela, eta, beraz, konfrontazioa egongo dela. Alde horretatik, Kataluniara begira gaude, ze uste dugu bertako puntu bero horietatik guk ere pasatu beharko dugula lehena-  
go edo beranduago. Batetik eta bestetik ikasi bai, baina hortik



aurrera gure bidea geuk zehaztu beharko dugu. Euskal Herrian baditugu beste zenbait kontu eta horietan ere pausoak eman-  
go dira; bete-betean sartuta gaude gatazka armatuaren konponbide prozesuan. Baina, hortik harago, gatazka politikoaren erroak konpondu beharra ere badago, eta hor gakoa erabakitze eskubidea da. Gatazkaren konponbide prozesuaren pista horretan beharrezkoa da urratsak ematea eta beste agertoki batzuetara pasatzea, era horretan independentziara daraman bidaian indar metaketa oso era pragmatikoan planteatzeko.

Horrek ez du esan nahi bata-  
k bestearen zain egon behar duenik. Erabakitze eskubidearen inguruan ari garenean ezinbestez erabakitze eskubidea eta erabakiko dena nahasten dira, eta, ondorioz, independentzia-

*«Bide  
independentista bat  
martxan jartzeko  
eta arrakasta  
izateko horren  
aldektasun bat  
metatu beharra  
dago, subjektu berri  
bat eraiki.  
Ezinbestean eraiki  
beharko dugu  
euskal estatuaren  
aldeko subjektua,  
abertzaletasunetik  
harago»*

ren gaia eztabaidaren erdian ko-  
katzen da. Independentziaren  
edo euskal estatuaren gaiaren  
inguruan sekulako konfrontazio  
ideologikoa dago, eta hor pauso-  
ak eman behar ditugu; gaia ego-  
ki landu eta subjektu independen-  
tista berria sortu behar  
dugu. Horrek lehengo molde za-  
har batzuk aldatzea eta planteamendu berriak egitea dakar, XXI. mendeko independentismo berria lantzea.

**Jendartean igartzen da gauzak mantsoegi doazen sentsazioa.**

Beste toki batzuetan urrats zeha-  
tzak ematen direla ikusita, sarri-  
tan antsietatea sortzen da. Garai  
oso-oso garrantzitsuak bizi ditu-  
gu. Halakoetan beti esaten da  
une historikoan gaudela. Nik ez  
nuke hala esango; prozesu histo-  
riko bat martxan jartzeko aukera  
baten aurrean gaudela esango

nuke. Horretarako oinarri so-  
ziala antolatu behar da, bai era-  
bakitze eskubidearen alde eta  
baita euskal estatu sortzearen  
alde ere. Subjektu hori metatu  
eta aktibatu behar da eta estra-  
tegia zehatzak garatu, bidaia  
orria zehaztu. Lana badaukagu,  
independentziarako bidaia hori  
prestatzeko lanetan bete-bete-  
an sartuta egon beharko genuke.  
Zentzu horretan herritarrek su-  
matzen dute zerbait badela, eta  
beharrezkoa da herritarrak akti-  
batzea eta mugimendua sortzea,  
ze une batean halako sinbiosi  
bat eman behar da, Katalunian  
gertatzen ari den antzera.

**Herritarren eta alderdi politi-  
koen sinbiosiaz ari zara?**

Alderdi politikoen pisu handia  
daukate urratsak emateko or-  
duan. Katalunian esaten da ez ba-  
litz herria martxan jarri, herri  
mobilizazio hain handia gertatu  
izan ez balitz, alderdi katalanek  
ez lituzketela emango eman di-  
tuzten urratsak, eta, gainera, ez li-  
tuzketela urrats horiek akordio  
eta konpromiso bihurtuko insti-  
tuzioetan. Joko horretan herrita-  
rrak –oinarri soziala–, alderdiak  
eta instituzioak daude; herrita-  
rrek presioa egin behar dute nola  
edo hala alderdien arteko elkarla-  
na bultzatzeko eta horiek erakun-  
deetan konpromisoak har ditza-  
ten, baina konpromisoak hartzen  
diren momentuan presio horrek  
babes bihurtu behar du. Hor dago  
nire ustez gakoa. Baina hori lan-  
du egin behar da, ez da berez sor-  
tzen, eta horretan hemen izuga-  
rrizko lana daukagu. Hori guztia  
antolatzen hasteko garaia da, eta,  
zentzu horretan, aktibatzea ga-  
rantzitsua da, baina antsietatea  
ez da ona. Prozesu bat martxan  
jartzen denean garrantzitsuena  
da ez geratzea. Urrats bat ematen  
denean hurrengo urratsa pentsa-  
tuta edukitzea; izan ere, nahiz eta  
urratsak txikiak izan, ematen ba-  
dira, prozesua egon badago. Urrats  
handi bat eman eta ondoren ez  
badago gehiago, prozesuak gelditu  
egiten dira, eta, geldituz gero,  
usteldu ere erraz egiten di-  
ra. Agian prozesu historiko baten  
aurrean gaude, eta ondo landu  
behar dugu, ondo prestatu behar  
dugu bidaia.



## POSTMODERNO XELEBREAK - Zenbat txorakeria jasan behar ditugu artistok...



## Emakumezkoen eskubaloia, hobe

**Xabier Mikel Errekondo**

ugarria izan da emakumezkoen eskubaloia azken bi hamarkadotan izan duen bilakaera, eta jokoaren arlo guztietan gainera: abiada, taktika, teknika, talde-lana, tempo edo partidaren erritmo egokia, eta abar. Mutilen jokoak, baina, erretiroa hartu nuen 2002 hartatik hona, abiatan soilik du irabazi.

Gogorra da eskubaloia, kontaktu askokoa, eta ohikoak izaten dira gihar zein hezur hausturak, erorikoak, talkak, kolpeak, urratuak eta ubelak... Exijentzia fisiko altuak berak ere egiten du erakargarri eskubaloia, eta nago horrek mutilek neskek baino hobeto jokatzen dutela pentsatzera eramaten duela asko eta asko. Ahalmen fi-

siko hutsa, ordea, antzu eta zatar geratzen da gainontzeko ezaugarriez blaitu ezean. Gehiegitan gertatzen da espresio fisikoak garrantzikoagoak diren beste ezaugarriak estali egiten dituela, taktika, teknika, diziplina, talde-lana eta erritmoaren kontrola batez ere, norgehiagoka askotan guztiz desagerrarazteraino. Salbatzailearena, norbera taldearen gainetik ezartzen duena, izaten da arrazoi nagusia. Erruz eta erraz kutsatzen den gaixotasuna, batez ere mutilengan. Hauek ez dute ikasi nahi diziplinarekin taldean lana eginaz sortzen direla norbere gaitasunen inspiraziorako aukera ugariak. Okerrena entrenatzaileak ere ez direla konturatzen salbatzaileak zeinen

kaltegarriak diren. Erraza da gaixotasunaren sintomak antzematea: partida korrika saio eroan bilakatzen da eta eraso, batere landu gabekoa, norbanako saiakera hutsean jaurti eta jaurti. Hamar goleko abantaila hamar minututan galtzeko dinamika egokiena! Kasualitatea ote da mutilen artean baino ez dela ematen?

Ez dio Bera Berak Bartzelonako mutilen taldeari irabaziko, ez da hori kontua, baina eskubaloia maila gorenez gozatzeko bat ez du bestearen inolako inbidiarik.

Maila apalagoan, Usurbilen berdin gertatu zait. Orain aste bete nesken zein mutilen talde heldu biak mailaz igo egin dira. Nire zorian soilik nesken taldeari. •





Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

## IKUSMIRA

# HUSTU DIRA ENTZULEEN AULKIAK, ITZALI ARGI FOKUAK

Irratia piztu eta isiltasuna. Kalera irten eta berdin. Hau gozatua! Zenbat promes, zenbat hitz polit, belarriek gainezka egiteraino... Isidu dira mikrofonoak. Hustu dira entzuleen eserlekuak. Itzali argi fokuak. Haize erauntsiaren ondorengo barealdia dator gaur. Bihar zer? Bihar hautestontziekin dugun hitzordua beteko

dugu. Eta astelehenean? Bizitza zain izango dugu. Bere gozotasunean, bere gordinean. «Zaharrak berri, gu beti galtzaile», esango du batek. «Aukera aproposa daukagu gure etorkizunari aurrez aurre begiratzeko», ohartaraziko dio albotik beste batek. Izango dira laster Europako Parlamenturako bidea lehen aldiz egingo duten euskaldunak. Bitartean, herritarrek bakoitzak bere etxeko, tabernako, lantokiko leihotik ikusiko dute egindako zakukada promes eta aginduak Euskal Herritik haraino iritsi eta ondoren gurera itzultzen diren proiektu sendo bihurtuta ala bidean galtzen diren... [xole.aramendi@gaur8.info](mailto:xole.aramendi@gaur8.info)



## NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Argazkia: Flo HERTENSTEIN

# Elikagai ekologikoen eskaintza zabala

**M**aiatzaren 24an eta 25ean, naturaren babesa eta ekoizpen ekologikoa uztartzen dituzten esperientzia ezberdinak aurkeztuko dira Gernikan, nekazaritza ekologikoa eta ingurumen naturalaren kontserbazioari buruzko jardunaldietan.

Nekazaritza jarduerak uztearen eraginez, nekazaritzarekin lotutako ekosistema eta bioaniztasuna galbidean daude. Arriskuan dagoen ekosistema horietako bat da Urdai-baiko landazabal atlantikoa, eta berarekin lotzen diren landaredi, hegazti zein bestelako animalia eta intsektuak.

Arazo larri horren berri eman eta beste leku batzuetan topatu dituzten irtenbideak erakutsi asmoz, Nekazaritza Ekologikoa eta Natura Ingurumenaren Kontserbazio Jardunaldiak antolatu dituzte Gernikan asteburu honetarako. Lurgozo kontsumo elkarteak, Ekokontsumo Federazioa, Lurguia Fundazioa eta ENEEK dira antolatzaileak.

Tradizionalki, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak ekosistema orekatuen sortzaile izan dira. Agroekosistema hauetan, elikagaien ekoizpenak eta oreka naturalak bat egin izan dute, guztien mesedetan. Nekazaritzarako gai kimikoen etorrerak eta ekoizpen ereduaren intentsifikazioak, ordea, oreka hori apurtu zuen. Gehienetan, pestizida, plagizida, herbizida eta ongari kimikoen eragindako kutsadura izan da agroekosistemak izorratu dituenak. Beste kasu askotan, giza jardueraren eta naturaren arteko orekaren eredu diren agroekosistema hauek maneiu tradizionala utzi izanak galarazi ditu. Asteburu honetan, oreka hori nola berreskuratu irakatsi nahi dute Gernikan, adibideen bitartez.

Aurkeztuko diren esperientzien artean, hegaztien zaintzarako lan egiten duen SEO/Birdlife erakundearena dago. 2001ean, erakunde horrek Riet Vell enpresa sortu zuen, Ebroren delta (Herrialde Katalanak) bezalako hezegune eta hegazti-topaleku garrantzitsu batean arroz ekologikoa ekoizteko 52 hektareako eremu bat sortzeko. Ho-

rez gain, Aragoiko Monegros eskualdean pasta egiteko gari gogor ekologikoa eta erromero ezti ekoizten ditu. Hegaztientzako ekosistemak sortzea eta elikagaien ekoizpena (ekologikoa, nola bestela) uztartuta. Izan ere, SEO/Birdlife azpimarratzen duenez, azken urteotan, nekazaritza eremuetan oso ohikoak ziren zenbait hegazti espezie (eper gorria, belatz gorria, antzandobi handi ipartarra, kalandria, kutturlio arrunta edota etxe-txinboa kasu) beherakada handia izan dute, nekazaritza eremuen kutsadura eta abandonua tarteko.

### MOZOLO POPULAZIOAREN BEHERAKADA

Brinzal elkarte madrildarraren esperientzia izango da aurkeztuko den beste esperientzietako bat. Gautxori harraparien arloan egiten du lan elkarte honek, zauritutakoak artatu eta berriro askatuz zein bestelako proiektuak eta ekimenak bultzatuz. “Un mochuelo en cada olivo” ekimenarekin, mozolo europarraren populazioa berrindartu nahi dute. Datuen arabera, azken hamabost urteotan %40ko beherakada izan du mozoloak. Berriz ere, nekazaritza jarduera tradizionalak albo batera utzi izana eta nekazaritzarako gai toxikoen erabilera dira errudun nagusiak. 2012az geroztik, Brinzal elkarteak nekazariak sentsibilizatu eta trebatzen ari da, mozoloek beraien betiko kokalekuetara bueltatzeko modua izan dezaten. Nekazariari inolako kalterik ez egiteko lehentasunarekin, landaredi basatiarentzako guneak sor-

tzen dituzte (hor gordetzen baitira mozoloen dieta osatzen dute ornogabeetariko asko), habiak instalatu, almendrondoak landatu, harri piloak egin harraparietako talaia gisa erabil ditzaten... Herbiziden erabilera ezabatzeke ere, belarraren kudeaketarako gakoak ematen dizkiete nekazariari. Hogei baserritar eta sei ekoizpen eta kontsumoko kooperatibekin egiten dute lan, 77 hektarea hartzen dituzten olibadi, mahasti eta ortuetan mozoloaren habitata berreskuratzeko ekintzak burutuz.

Hitzaldiz betetako goizaren ondoren, jardunaldietako parte hartzaileek itsas txango bat emango dute larunbat arratsaldean Urdai-baiko estuarioan barrena. Igandea bertoko errealitatea ezagutzeko eguna izango da. Urdai-baiko Hegazti Zentroan landazabal atlantikoko habitatak duen egoera kaskarraren berri izango dugu. Ondoren, Lurguia Fundazioak Busturian duen baso eta lurralde zaintzako proiektua erakutsiko du. Jardunaldiek irauten duten bitartean Ortutik Ahora elkartearen eskutik bazkariak eta afariak eskainiko dira Gernikako Astra Gunean. Elkarte horren “Gastrobarazki” proiektuak menu begetariano prestatu du, inguruko nekazari ekologikoen zein aurkeztutako proiektuetako produktuekin benetako gutuziak eginez. Jator du bakoitzaren prezioa, ogia eta edaria barne, 10 eurokoa izango da.



# infraganti

## AINHOA GALDEANO

Patinen irrista haurra zela ezagutu zuen Bilboko Artxanda mendiko izotz pistan; orain lau urte, gurpil-lerroko patinaje artistikoa probatzeko tentazioari ezin izan zion eutsi eta lehian hasi zen berehala. Pasa den asteburuan Basaurin jaiotako patinatzailea Munduko Openeko podiumeko kaxa altuenera igo zen, master kategorian.

**P** anticosatik bueltan topatu dugu Ainhoa Galdeano Arrigorriagan bizi den patinatzailea. Huescako herrian ospatu zen pasa den asteburuan IV. Gurpil Lerroko Patinaje Artistikoko Munduko Opena.

Gustura baino gusturago dago bertatik ekarri duen emaitzarekin, podiumaren kaxa gorenera igotzea lortu baitzuen, Adults Master kategorian. Itxaropenez beteta abiatu zuen txapelketarako bidea, prestaketa lan handia egin zuelako, baina lehian edozer gerta daitekeela ondo baino hobeto daki. «Prestatuta egonagatik, urduri jartzen bazara, akatsen bat egin dezakezu nahi gabe eta egin duzun lan guztia alferrikakoa gertatzen da», azaldu du.

Kirioak tenplatzea lortu zuen antza, besteak baino trebeago aritu zela Panticosako pistan erabaki baitzuten epaileek. Dagoeneko ohitura hartzen hasia dela pentsa daiteke, iaz ospatu zen III. Munduko Openean ere lehen postua lortu baitzuen jaiotzez basauriarra den patinatzaileak.

### KASUALITATEAK BULTZATA

Orain dela lau urte berriz ere patinekin lehiara itzuli zenean inork halako emaitzarik lortuko zuenik esan izan balio, ordea, nekez sinetsiko zion Galdeanok. 44 urte dituen patinatzaileak, txiki-txikitatik jakin du patinajeak dakarren «askatasuna» usaintzen. «Artxandan zegoen izotz pistan hasi nintzen haurra nintzela patinatzen, baina itxi zutenean utzi egin nuen», argitu du.

Orain lau urte kasualitateak eraman zuen gurpil-lerroko pa-

tinaje artistikoa deskubritu eta probatzera. «Interneten neska bat ikusi nuen pirueta bat egiten; kaleko patin arruntekin halakorik egitea ezinezkoa zela pentsatu nuen, eta horregatik hasi nintzen Sarean begira; patinei aurrean jartzen zaien ta-koari esker egin zitekeela ohar-



Ainhoa Galdeano, Panticosan lehia amaitu bezain laster. GAUR8

tu nintzen», oroitu du Galdeanok.

Harrigarriagoa izan zen Interneten ikusi zuen neska hura neskatiela zela berarekin izotz gaineko patinajea egin zuen emakume baten alaba zela ohar-tu zenean. Segidan jarri zen harekin kontaktuan eta konturatzera oinetan jarriak zituen gurpil-lerroko patinaje artistikoa egiteko patinak.

### «HORIEK BAI, NIK ERE BAI»

Laguntzaile gisa, «epaileen puntuazioak jasotzera», joan zen lehen txapelketara eta bertan ezagutu zuen gertutik master kategorian. «Nire adineko jendea zen eta haien mailan aritu nintekeela pentsatu nuen», gogora ekarri du.

Azken batean, «izotz gaineko patinajearen parekoa da, baina, hortzaren gainean beharrean, gurpilen gainean irristatzen zara; aurreko aldean, berriz, takak ditu patinak piruetak egin ahal izateko». Bizikletan ibiltzen ikasten duenak ez duela sekula gurpilen gainean ibiltzeko trebezia galtzen esan ohi da, eta, parekoa gertatzen da, Galdeanoren ustez, patinekin. «Oreka, patinaje artistikoan egiten diren ariketak eta keinuak barnerratuak neuzkan txikitatik eta haiek ez dira erabat galtzen», azaldu du, bere kontura patinatzeari inoiz ez diola utzi gogora ekarrita. «Entrenamenduetarako diziplina berriz ere egokitzea izan da zailena», onartu du.

Jakara joaten da noizean behin «entrenamendu zehatzago eta gogorragoak» egitera, eta, gainerakoan, etxe ondoan lantzen ditu erritmo eta koreografiak, gutxienez astean bitan. Saio horietan fintzen ditu World In line Figure Skating Association erakundeak lehiaketetarako ezartzen dituen gutxieneko trebeziak eta arauak.

Ez du ahazteko parte hartu zuen lehen txapelketa. «Parisen egin zen. Oso-osu urduri nengoen, nahiz eta jakitun nintzen ez nuela ezer galtzeko», aipatu du. Beldurrik handiena txapelketarako osatu zuen koreografiaren



zatiaren bat ahaztea zela gogoratu du, eta, hala gertatzekotan, «ahalik eta gehien disimulatzea; hori egiten ere jakin behar baita».

Azterriko patinatzaileekin lehiatzen da, batez ere, «Europan hemen baino askoz era tradizio handiagoa dagoelako». Hori dela eta, patinajearen aitzakian batera eta bestera bidaiatzen du txapelketetan parte hartzeko. Hala, Parisen edota Bukaresten izan da azken urteotan patinak jantzita.

### GERO ETA ZALE GEHIAGO

Pixkanaka patinajea inguru hauetan ere zabaltzen ari dela uste du Galdeanok, eta horregatik «gero eta jende gehiago ikusten da kalean patinekin». Etorkizun hurbilean, beraz, patinatzaile gehiago izango direla iritzi dio, «horretarako ba-





Ainhoa Galdeano, Panticosatik ekarri dituen garaikurrekin Bilboko Moyua plazan. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

## Gure esku zer?

**Joseba Otondo**

**Z**er dago gure esku? Izatez dena eta ia deus ere. Ia

deus ere horretarat franko oharkabeen eraman gaituzte, horretarako baliatuz produkzio sistemaren berrantolaketa, kontsumo ohiturak, eredu politikoak. Ia deus ez dagoela gure eskuetan sinestarazi nahi izan digute, bizitzeko alderdi guztiak funtsean berezkoak direla eta horiek menpekotasun eta hierarkia harremanetan antolatzen direla. Norberak du bere burua aitzinerat bakarka atera beharra.

Gure esku zer dagoen? Izatez dena. Ondokoarekin solas egitea eta solasaldian elkar aitortu eta errekonozitzea. Komunikatzea eta harremanak egitea, eta egite horretan kolektiboki antolatzea, kolektiboki gure burua ikustea eta ezagutzea auzo, herri, nazio edo klase bezala; kontzientzia hartzea. Partaidetzaren sentipena izatea eta partaide sentituta ingurukoekin borondatearen indarrean eta antolaketaren balioan sinestea. Ilusioa. Jarrera aldaketa. Bizia gure eskuetan dagoela sinestea eta hala jokatzeko. Ilusioa berreskuratzea eta kutsatzea. Jakinik gure herria eta bizi dugun mundua kontrako interesen arteko talkan mugitzen direla; sistema kapitalista eta patriarkarra, izatez, indarraren erabileran oinarritzen dela eta gure bizia gure eskuetan dagoela pentsatze hutsarekin eta jarrera aldaketarekin ez dela dena aldatuko. Baina hori gabe ezinezkoa da ibiltzea. Ibiltzen hasita ikusiko da non korapilatzen den afera, interes aurkariak nola jokatzeko duten eta horren aitzinean nola jokatzeko dugun.

Ondokoarekin solas egitea eta herritarrak egun eguzkitsuan *lip-dub* baten grabetan inplikatzeko. Egunaren inguruan dabilen burrunba, jendeen artean sumatzen den alaitasuna, eta, ondoko egunetan, denen irrika bideoa noiz ikusten ahalko duten zain, marmarka. Ilusioa behar dugu litroka edo tonaka. •

**Orain lau urte itzuli zen patinaje lehietara; Interneten ikusi zuen neska bat gurgil-lerroko patinaje artistikoa egiten eta hark egiten bazuen berak ere egin zezakeela pentsatu zuen**

**Bere poltsikotik ordaindu behar izaten ditu txapelketetarako bidaiak. Oporretan gastatuko lukeena inbertitzen duela dio, patinatzea delako bere zaletasunik handiena**

liabideak» jartzen badira. Izan ere, lastima da, bere ustetan, Bizkaian izotz pista bakar bat ere ez izatea, halakorik izateak lurralde osoan patinajea asko indartuko lukeela uste baitu.

Aurrera begira, orain artean bezala, «disfrutatzea» dela bere helburu behinena aitortu du, bai eta lehiaketa gehiagotan parte hartzea ere. «Pizgarri bat

da txapelketetan parte hartzea; azken batean, zure buruari helburu bat jartzen diozu eta horrela askoz ere errazagoa da entrenatzea eta ahalik eta gehien hobetzen saiatzea».

Lehiaketetan parte hartzeak, ordea, entrenatzeaz harago eskatzen dio esfortzua Galdeanori, egiten dituen bidaiak bere poltsikotik ordaindu behar izaten ditu eta. «Babesleak topatzea ez da batera erreza, besteak beste, hau ez delako oso kirol ezaguna gure artean», aitortu du. Urtean zehar egindako lana bere buruari lehenik eta gainerakoei ondoren erakusteko ematen dion plazerak, ordea, merezi du esfortzua: «Oporretan gastatuko nukeena lehiaketetara joaten inbertitzen dut, nire *hobby* gus-tukoena horixe delako». •

maider.eizmendi@gaur8.info

# SARE @ N

## EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietarako batzuk:

### > Trenak

Kalkulu akatsak garesti atera ohi dira. Galdetu bestela Estatu frantsesari: SNCF tren-konpainiak bi mila bagoi berri egiteko eskatu zuen bere eskualdeetako sarea indartzeko eta, orain, zentimetro gutxi batzuegatik ez direla estazioetan kabitzen konturatu dira. Errua norena den eztabaidatzen ari diren bitartean, hasi dira jada tren geltokiak egokitzen. Guztira 1.300 moldatu beharko dituztela aurreikusten dute. Ez da goena garbi zera da: lan horiek nork ordainduko dituen.

### > eBay

eBay enpresak 128 milioi erabiltzailerik beren pasahitzak aldatzeko gonbita egin die; merkataritza elektronikoko enpresak, izan ere, eraso ziberbnetiko bat jasan du. eBayk azaldu duenez, aipatu erasoak erabiltzaileen informazio pertsonala agerian utzi du, nahiz eta finantza datuei eta PayPal ordainketa zerbitzuari eragin ez. Electronic Privacy Information Center erakundeko Julia Horwitz kontsumitzaileen aholkulariak enpresen eta gobernuen erantzukizunak eskatu dizkie.

### > Zaborra

Lausanakoko Eskola Politeknikoak espazioan dabilen forma eta norabide ezberdineko objektuak bost segundo-ehunenetan biltzeko gai den beso robotikoa diseinatu berri du. Besoak metro eta erdiko luzera du eta inguruan dituen kameren bidez aztertzen du objektuen norabidearen, abiaduraren eta errotazio mugimenduaren gaineko informazioa. Behin objektuak eskuratuta, espazioko zabor hori pilatu eta bueltan Lurrera bidalaraztea da asmoa.

### > Uholdeak

Milaka milioi euro. Oraindik behin betiko datu ofizialik ez bada ere, lehen kontuen arabera Balkanetan izan diren uholdeek eragindako kalteak konpontzearen kontua handia izango da. Bosniak eta Serbiak Europar Batasunaren laguntza eskatu dute ingurua berreraikitzeke. «Egoera oso larria da, elektrizitatekerik ez dago eta jendea teilatuetera igo da, ibaiak berriz ere igoko ote diren beldur», aipatu du Bosniako apaiz batek. Uholdeen eraginak bereziki gogorak izan dira Bosnian.

### > Rotterdam

Auto lasterketek bestelako kutsua hartzen dute Rotterdameko Shell Eco-marathon lehiaketan: garrantzitsuena ez da abiadura, baizik eta nork egiten duen distantzia luzeagoa deposituan erregai kopuru gutxien daramala. Lehiaketa 1985etik egiten da. Orduan gasolina besterik ez zuten erabili hamabi parte hartzaileek. Egun, berriz, 200 taldek gora biltzen dira eta askotariko erregaiak erabiltzen dituzte: gasolina, gasolioa, etanola, elektrizitatea... Hidrogenoa darabilen autorik ere bada.



## KUTXATEKA.COM

### HIRITARREN JOAN-ETORRIARI BEGIRA EGOTEAREN PLAZERA

Irudian ageri den bikotea bueltaxka bat emateko gelditu da Donostian. «Goazen haize pixka bat hartzera», esan diote elkarri. Pausua pausaren atzetik, nekatu ere egin dira. Hortxe daude, Mari kalean, atsedean hartzen. Izan ere, ba al dago ikuskizun hoberik lasai ederrean kaleko aulki batean eseri eta hiritarren joan-etorri etengabeari begira egotea baino? **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

**Ander Izagirre**  
Kazetaria



## Ez da isilik egoteko garaia

**A**ukeratu behar nuen: biktima izan ala kazetaria izan. Eta kazetari izatea erabaki nuen», dio Jineth Bedoyak, 39 urte, "El Tiempo" egunkari kolonbiarreko zuzendariordeak. Bederatzi urtez isilik egon eta gero, 2009an bere historia jendaurrean azaltzea erabaki zuen. Kolonbiako telebista saioren ikusienean agertu zen eta bere kontakizun gordinak hotzikarak eragin zituen herrialde osoan.

Hauteskundeak dira bihar Kolonbian. Gobernua eta gerrilla elkarrizketa-mahaian eserita daude, Habanan, eta bakearen itxaropena inoiz baino sendoagoa da. Baina putzu oso ilunak daude Kolonbian eta horiei buruz etengabe hitz egin behar dela dio Bedoyak. Adibidez: emakumeen kontrako bortxa sexuala gerra estrategia bat da, alde guztiek nahita erabili dutena, modu sistematikoan, buruzagiak diren edo ahotsa altza duten emakumeak zigortzeko. Eta krimen isilena da: 2001 eta 2009 artean soilik, milioi erdi emakumek jasan dute bortxa hori gatazkaren barnean, eta zigorgabetasuna ia erabatekoa da. Ez dago ia salaketarik, ezta zigorrik ere, jakina.

2000ko maiatzaren 25ean, Bedoya 26 urteko kazetari bat zen eta ikerketa arriskutsu batean zebilen: talde paramilitarren eta Estatuko agenteen arteko arma trafikaren frogak biltzen ari zen. Egun hartan La Modelo kartzelara joan zen, bertan espetxeratutako buruzagi paramilitar batek elkarrizketa bat agindu ziolako. Beste kazetari batekin eta argazkilariarekin azaldu zen Bedoya, baina espetxera sartzeko paperak betetzen ari zela, beste bulego baterantz eraman zuten eta orduan hiru gizon armatuk bahitu eta auto batean eraman zuten. Hamasei orduz bortxatu eta torturatu ostean, zabortegei batera bota zuten.

**Bedoyari bizitza apurto egin zioten. Kalte fisiko eta mental oso larriak jasan zituen. Baina etxetik ateratzeko arrazoi bati heldu zion azkenean: kazetaritza.** Ikerketa lanei ekin zien berriz ere, eta 2003ko abuztuaren berriz bahitu zuten, FARC taldeak kasu honetan, gerrillak herri bateko biztanleak kokaina ekoiztera behartzen zituela kontatzen ari zelako.

Baina ez zuen bere historia osoaren berri eman 2009 arte. Orduan Oxfam-Intermon erakundeak "Atera nire gorpua gerratik" kanpaina antolatu zuen Kolonbian eta Bedoyari iruditu zitzaion bere kasua azaldu behar zuela: «Emakumeen aurkako bortxa izugarria da eta inork ez zuen sekula aipatzen. Horregatik erabaki nuen nire historia zabaldu behar nuela».

**Ordutik aurrera, Bedoyak lana bikoiztu egin zuen. Batetik, kazetaritza zorrotza egiten jarraitu zuen.** FARC gerrillako buruzagiei buruzko liburu eta erreportajeak kaleratu ditu, umeen prostituzioa antolatzen duten talde paramilitarrei buruzkoak, narkotrafikatzaileei buruzkoak... Presio astunak eta mehatxuak egiten dizkiote; eta ikerketekin zirikatatu dituen alkate, fiskal eta ministroekin eztabaida eta liskar latzak izan ditu. Ez da kikitzen. Bestetik, "Ez da isiltzeko garaia" lelopean kanpainak antolatu ditu (Twitterren jarraitzeko: #NoEsHoraDeCallar, @jbedoyalima). Kolonbiako futbolari ezagunak konbentzitu zituen, zelaietan bortxakeria matxistaren aurkako mezuak zabaltzeko; kontzertuak eta jaialdiak antolatu zituen, baita kazetarietako mintegi bereziak ere, bortxakeria matxista horren biktimei buruzko trataera oker eta bidegabeak zalantzan jartzen hasteko.

Jineth Bedoyak hiru edo lau ordu egiten du lo egunero. Osasun arazoak dauzka etengabe. Heriotza mehatxuak jasotzen ditu. Nazioarteko sariak ere ematen dizkiote baina atzerriko unibertsitateetan urte bat edo bi pasatzeko gonbidapenei ezetz esaten die. Nahiago du Kolonbian tiro batez hil, esaten du, Europako hotel batean depresio batek jota baino.

Jineth Bedoya emakume txikia da, argala, irribarre hauskorrekoa. Bogotako jattetxe batetik irteten da eta zain dauzka bi auto blindatu eta bost bizkartzain.

«Badakit dramatikoak ematen duela», esaten du, ahots leunez eta granitoko irmotasunez, «baina denboraren kontrako lasterketa batean ari naizela iruditzen zait. Ez dakit noiz arte utziko didaten bizitzen. Horregatik egiten ditut hainbeste gauza batera, horregatik ez daukat bizitza pertsonalik, gelditzen zaidan denbora guztia lanerako behar dudalako».

•

www.anderiza.com



Jineth Bedoya kazetariak bere larruan pairatu du Kolonbiako bortxakeria. GAUR8


osasuna / hiriarren lo(r)aldia / komunikazioa

3 BEGIRADA:




1.5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA  
EUSKARA HUTSEAN



**DATORREN OSTIRALEAN**  
**ZURE KIOSKOAN SALGAI**



# 7haizetara



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • [www.zazpihaizetara.com](http://www.zazpihaizetara.com)

